# EGUNA JEL

Lafi - aldijetan agertu biaf da sendotasuna. Jolas-aldian, edoñor da baikof ta adoretsu.

Lgo. urtla | 97'gn. zenbaklja | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 937'gn. jorralla 24'gna. larunbata | 15 eunen


EUZKO GUDA-OÑETAN

# Ilunduta gero, joaldi indartsuak egiten ziran Elgeta eta Elorio inguruan

**Elorio-aldean bereziki, indartsu, bero ta zital jo eban arerioak; une batzuetan joaldi gordiñak egin ziran, baña gure mutillak euren aberiko lurak zaintzen eta aldeztuten dakie.-Paxisten egazkin ugari mendietan.- Ondaroa gañeko paxisten esiak zigortu ta ezerestu ziran.**

## Beste iru ontzi janariz

## Atzo goizean eldu ziran Bilbao'ra "Hamsterley", "Mac Gregor" ta "Stenbrook" ingeles ontziak. - Paxisten ontziak ikusi egin zituen.

Paxisten esanik asko batzuentzat egi biribil izaten diran aien, esan eta bafiketok geyenez guzur uts izaten dirala azalduteko aukera ta ereti alagalakoa dogu gaurkoan.

Bilbao kaine iñor eltzerik, ontziric partzerik ez egola, oyu ta dialar naikoa erabili daukue paxistok. Miñaz josita dagola salera, gudontziak ez ebela ezer igaroten lagako, blokeo dalakoa estu eta zeatz egiña ebela, bein eta bafiro adirazi euskuen, guri eta mundu zabalari, ifatiz eta izpafingiz.

Lufetik aufera egitea baño aukerakoago eta irixtelezago etsi eban afen Franco'k joan dan astean kai ori itxitea, euzkoiak gosez beia jote beste zati baten ez dirala izango erantzun bearko olako bafitsuen.

Iñungo estadu ontziri gure kai onetara janaria ekafterik ez eutsela laketuko esan eben, eta askok sinistu ez, bañan eurek jakingo dabe zergaitik esanok jaso egin zituen, aintzat artu, eta zabaldu bere bai.

Baña ofetzaz eztabaida izugafiak izan eta biaramonean bertan, blokeo ori pa



"HANSTERLEY"



"STENBROOK"

xisten guraria baño etzala ikusi eben guztiak

Itxas-bide zabal eta mugabakoak itxita egozan Franco'ren esakeraz, baña "Seven Seas Sprag" nasai asko ez zan eldu gure kaiera, ezetariko eragozpen barik eldu yakun, arean bere. Ez miña, ez arerio eldu zan ontzi ori, ingelandafa genduan. Eta bakafa eta azkenengoa ez zan izango, gañera, gure zorionez.

Atzo bertan, beste iru ontzi eder, ingelesak oneik ere eldu izan yakuz.

Lenengoa sartu zanean, atzefitaf agindari eta izparkarien artean egundoko astrapalada ta izketaldiak izan ba-ditue, bafiren bafi Euzko Gobernuaren itzak gobernu jator batenak dirala esan bearean dira.

Bilbao'ko kai-esitzeak zeresan eta bafiketa andiak sortu ba-zituen egitatt artu ebenean, orain guzufa argi ta garbi azaldutean, ez da bestera izango.

JANARIZ BETERIK

Donibane Loitzun'dik atera ondoren estariko eragozpen barik etozan "Hamsterven Seas Spray" nasai asko ez zan eldu ingeles sama-ontziak.

Late'-uretara eldutean, "Galerna" paxisten ateunak bidera urten nai izan tsen, aufera egiten gebendu nairik. Telegrafuz otsegin eutsen geldiuteko esanaz, baña ingeles ontziak ez eutsoen jaramonik egin.

Gerotxoago, "Bizkaya" gure ateunak urten eutsen bidera lagundutera.

Beste eragozpen bage eldu ziran gure kaiera, goizeko amafak aufetxoan, janari ugariz beterik.

**"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALEA. USTE GABEAN KALERATU ZAIGU ETA ASKO ARITUTA DAUDE NOLA EUZKERAZ EGUNKARI BAT ARGITALDU LEIKEN. IRAKURTZEN ALDEZU? ARPIDETU ALTZERA? ZERI BEGIRA, ZAUDE?**



"MAC GREGOR"

ELGETA'N

Joaldi latzak, joaldi lafiak, etenbakuak egin ziran atzo afatsaldean alde onetan.

Goiza bareisu igaro zala esan daike.

Ez ofaitik afatsaldea.

Arerioa su bizia egiten asi zan.

Egazkiñak goitik, kañoiak eta pusilak betik, etengabeko sua botaten jardun eben.

Egazkin ugari ibili zan.

Lenengo joaldietan erabili zituzan egazkiñak bafiro Euzkadi'ko mendi onetara ekafi ditula esan giñei.

Arerioak ba'daki gure mendietan zaf jokatzen daben eta eurotan garaile urteteko bidefik eta erarik ez dau ukatu ta basterluko.

Gudarako gai dan guztia ementxe batuta darabil,

Gure mutilak ipiñiko eutsen indaraz etzan konturatu ofaitik arerioa gure mendiotan joaldiak egiten asi zanean.

Eta uste barik, berialako baten, egun gitxi bafu artu ta irabazteko ames eginda eukazan lufak oraindik gure mende dagozala ikusteak irakiten lagaten dabela esan lei.

Bere afotasunak iñoiz miñik artu ba'dau, gure luf oneitan artu dabela esaten ba'dogu guzufik ez dogu esango.

Atzo bertan, Elgeta'ko alde onetan gabat bidaf aufera egitea ames egin ebanafen, une baten be ezeben loren gure tokietarafio elizerik. Oinkada batik be ezeban auferatu.

Gure mutilen adore eta kemenak bakaf-bakafik egin leikez olako mafiak.

Arerioak baño indaf makalagoz jokatuta, bestia jo ez afen, norbera zainduko daben egazkin barik, gure mutilak iñoiz baño bulartsuago oartu genduzan arerioaren aufer kada gureak ebagi ta eurak atzeralzeu.

Elgeta'n auferarik nekez egingo dabela esan gendun lengoan. Atzoko joaldien ondoren bafiro ori esan biafian gora.

Izkillu guztiak erabili afen, atzo erabili ebazan lez, armarik auferatu ta zitalenak erabili afen, atzo lez, paxistak ez dabe alde onetan luf zatu bafirik lortuko, gureai ezer igaro ezik.

Afatsalde guztian eta ilundu ondoren joaldi berorik egin zan.

Arerioak, bafia, ezeban gurariik lortu.

Eta orixe naiko izango da, aurerakadarik etzala egon adierazoteko.

ELORIO'N

Goizeko ordubatak dira idazten dogun une onetan.

Eta oraindik inguru onetako joaldiak bizi jafaitzen dabe.

Elgeta'n baño biziago, gogorago, senduago eta zaratatsuago jo dau arerioak alde onetan.

Elgeta'ko joaldiak andiak eta indartsuak izan dirala esan dogu.

Alde onetakuak indartsuago, zaratatsuago.

Udala'n ames egiten nunbait arerioak.

Aitz ofek indaf andia izango leuke beretzat, geroago egin leikiazan joaldietarako.

Gure mutilak, baña ez dagoz ofetarako.

Paxistak euren egazkiñik getenak guda-oin oneitan erabili ditue. Afatsalde guztian eta goiz guztian gañetik kendu barik ibili dira gure esiak zigortu eta suz beteten.

Kañoak, morteruak eta artileri guztiak etengabe jaurtitu dabe, egazkiñen sua indartu eta berari laguntzen.

Tarteka-tarteka, pixkabat berotuta, adoretuta eta bizituta, arerioa bere esietatik urten eta auferantz egin gureaz igafi dogu.

Ez dira kikildu, ez dira ikaratu ta otzitu gure gudariak arerioaren suaren aufean.

Su ofek eragozpen ugari ipinten dituzanik ezin ukatu, naj dau lez ibili al izateko. Eta arerioak orixe bialduten eban atzo.

Gure mutilak atzeratu eziñak zirela igafita, bideak galerazo eta indafak makaldu eta banandu guraz egin ebazan alegin guztiak. Ezer lortu ebanik ezin esan.

Ofela, afatsalde osuan eta gau ilunean, joaldi bero ta bulaftsuak egin joaldi gordiñak askotan. Arerioak baja ugari izan ebazan.

Beti be joten asten dan alderdia izaten da zigoftuena.

Eta gure mutilak lako arerioa aufez-aure bilatu ezkero zer esanik ez.

Udala'n eta Kafaskain'en, odol ugari ixuri eban arerioak. Amaika ildalaga izan ebazan mendi ofeitan!

Ez dakigu gabeko joaldien barirk.

Ilundu ondoren egazkiñak aldenda ziranean, amofuz beterik ikusi genduzan gure gudariak eta geroago egiten ebezan joaldietan gureak zirala partu gendun indaftsuago ta bizigo egertzen ziranak.

Egazkiñik ba'geunke...!, esaten eskuen askok, indafa eskuan eiki afen nasai ta zabal ibili ezin zirala ikusi ondoren.

Egazkiñik ba'geunke...!

Aspaldi batetik eskintza edefak egin euskuezan. Geroago zer igaro danik ez dakigu.

Egazkiñok ba'legoz beste txori batek abes eginco leuke eta elitzake ainbeste gazte alperik jausiko, orain jausten diran legez.

Atzo bertan, arerioak ikasbide edefa emon euskun egazkiñak diralata.

Egazkiñak gure mendietan ebiltzala, ba'ekin ondo eordeta egonna eta nasaitasun apufez oartzen gendun.

Guriak ostera makurtuta egon biaf.

Eta aufeko arerioaren zaintzea gitxi zala goikoari begira egon.

Ala ta be gure mutilak leoiak legetxe aldeztu eta gudatu ebenik ezin ukatu.

Eta arerioak bere gurariik lortu ezebanik bere ez.

Arerioak berak daki ori guk bafio obeto.

LEKEITIO'N

Lamen gu izan giñan jotzalde.

Agintariak ikusketa eta azterketa joaldi txiki bat egitea erabaki eban, arerioaren indafak zenbaterafiokuak diran neurtuteko. Eta gure mutilak zintzotasunez ete eben zeregin ori.

Paxisten esi guztiak gogof eta zital jo ziran. Euretan egozan askok bizitzak antxe laga ebezan. Gure artetik edefto ikusi al izan zan euren artean jazo zan zarata ta erabili eben estutasuna.

Bafia geiagokorik etzan izan, gure gintariak nai izan ezebalako.

BESTE GUDA-OÑETAN

Aipagafi berezirik ez gendun oartu beste guda-oñetan.

Markiña aldean bakea zan egun guztian.

Gurma lodiak mendiak inguratzen ebezan eta origailik egazkiñak be ezin izan eben betik ibili.

Ofaitio ainbat aldiz igaro ziran leku onetatik. Jemein'go kanpaiak zarataka erabili eben egazkiñon uferatzeak adierazoten.

Eibar'en be etzan joaldirik egin.

Kañoiak lo egon ziran eta izkilarkafak zarata gitxi atara eben.

Morteruak alde bietatik zarataka ibili ziran, baña ondorenik ezeben ekafi.

Baranbio'ko aldean be artileriak lanik egin eban, bizitasun eta gogoftasuna andirik erabili ezeban afen.

Paxistenak asi ziran lenengo; gero guriak erantzun eta eurenak baño biziago jafaitu eben.

Pusilak geldi egon ziran.

Paxisten egazkiñak ostera batzuk egin ebezan alde oneitatik, baña suagarik jaurti barik.

Bardin Urkiola-Barazar aldetan.

Paxisten egazkiñak ikusketan egiten, kañoiak ots ixillsu eta baretsuan eta pusilak geldi.

Besterik ezeban emon atzoko egunak azkenengo izenfau dogunan mendietan.

# GARBI JOKATU DAGIGUN

**Negafgafi da ta lotsagafi arerioa gure gibelean dogularik, gure afteau kezka ta urduritasunak softuten ibili beafa.**

**Negafgafi da ta osoro ezesgafi.**

**Ezerestu barik, egin; indafgetu ta makaldu barik, sendotu ta indaftu; bidea laztu ta eragozpendu barik, landu ta zabaldu; guda-miña otzitu barik, bizitu ta gaftsututera beartuak gagozan unetan, jokabide batzuk aftu ta eurei eutsi guraz afo agertzea ez da zindo, zuf eta gitxiago egoki.**

**Gauf gu gagozan legetxe egon ezkero; arerioa b re indaf guztiak gure gain jarkit n dagon une oneitan, ezin daike jokabide ilun eta gafatzik aftu, gitxiago laketu.**

**Eritxiak euki, gorde ta aldeztu daikez; eritxiok aufera eruat ko aldi guztietan zuftasuna eskatzen ba'da. Gauf eskatu ez, beaftu egin beaf da zurtasun ori zaintzera.**

**Atzera begira, ataza zaindu ezinez, atzeagaz bildufetan egon barik, zeregiñik ugari emoten dabe guda-oñak.**

**Ofetara beaftuten dabenen aurka, Gob rnuak legearen indafa eskuetan zindoki euki begi. Dardara barik, biguntasun barik. Giza - seme guztiak gudarako bizi ta gudarako izatera beartuak gara aldi onetan. Iñok ezin daike jokabide ofori iges egin; gitxiago jokabide ori bastaftu ta gitxiago oraindik okeftu. Olakoentzat guda-legea.**

**Mia dogu onela agertzean. Gofoto barik, zuzentza miñez eskatzen do guna dala gogoan aftu ofaltik.**

**Eritxi guztiak gure lotsa ta begiramena dabe; gizon guztiak gure itzala. Baña legetik urteten danien berezikj gauf lako egunetan, lege ofen astuntasuna eskatu beafean gara, legetik urteten dab n ori adizkide edo arerio dan gogoan aftu eta euki barik.**

**Eriotza edo bizitza jokatzen dan egunetan, ezin daike egoera ta jokabide ilun eta eskuturik. Edo azkatasunaren alde argi ta zindo, edo azkatasunaren aufka. Edo paxistakeriaren aufka bizi ta gaftsu edo paxista-zala.**

**Paxistakeriaren aufka bere indafa ta izatea emoten ausartuten ez dana; paxistakeriaren aufka diñarduenei eragozpenak ipinten diarduenak, paxistak dira edo beintzat ofela etsi daikez.**

**Ez dago bitafterik.**

**Edo azkatasun zale edo paxistak.**

**Bata edo bestearen aufka edo alde egon, beti argi ta garbi.**



# BILBAO'KO izpaŕingiak

## "Euzkadi"

Paxiotaŕen gudaurkeatzaz idazten dau. Gudaurka au orain-arteko gustijak baño gogoŕagua dala diño, baña gudea buruz obeto geurtaurikua be.

Azkenengo aldiz Elorio-aldetik oldaŕtu ixan ei-dabe, suaga, guda-egazkin eta gudea buruz gixonak asmau al leikezan guda-tramankulu gustijakaz oldaŕtu be.

"Euzkadi" izpaŕingijak bere guda-izpaŕkari berezijaren aboz, orain jazoten diran jazokun oneik bein baño saŕijago iragaŕi ei-dauz. Eta orain-arte iragaŕi ixan dauna, iragaŕi ixan dauan lez jazo ixan ei-da.

Afisku-aldijak, afiskubak dauan gaŕantzi gustijaz ageŕtu biaŕ ei-litzakijoz eŕijari, arerijuen aurka gudatuten diran gudarijei yaoken gaŕantzija emonaz, eŕijari jakin biaŕ dauana jakinazoteko.

Gure gudarijak adorez eutsi ei-dautse arerijuei. Arerijuak gogor oldaŕtu-aren, gure gudarijak ez ei-dira, ba, koldaŕtuten. Gudarijak gudoñetan dagijen lana, bera dan neketsuba ta afisku aundikua dalako, guda au eŕ-aldezlijen gurendeaz beriala amaŕutu ikusteko gurarija dauken gustijei jakiñazoteko biaŕtuta gagozala uste dabela esaten dau azkenian.

## "Lan-Deya"

Egileor'taŕ Genar'ena da lenengo zetendako idaziana.

Euzkadi'ko gudea buruz idazten dau, ta guda'di onetan Euzkadi'k egun laŕijak jasaten dauzala diño.

Numancia'n eta Sagunto'n beste aldi baten ixan ziran gudaketa ospetsubak baño be gaŕantzi aundikuaguak dirala diño oraingo gudaketa oneik.

Gure gudarijen trebetasuna ikusita, baña, gure bijotzak itxaropenez asetuta geratzen dirala agertuten dau.

Gudari onejk, gurenda-'kuŕa diran ereñotz-bureŝtunak biaŕ leukezala adiazoten dau.

Euzkadi'ko gudoñetan pasjotaŕak egiten daben gudaurkea, aldi luzjan eralduten ibiliŕa gero egiten dabena dala be, argi ikusten dala esaten dau.

Euzkadi'ri egiten dautsen gudaurka onetan, Mussolini'ren gudarijak anelka ikusten ei-dira ikusi be, baña Hitler eta Mahoma'renak be.

Euzkadi'k, baña, gustijei eusten ei-ŕautse, ta auŕeruntz egiten jaga ez. Euzko-gudarijen kemena ta adoria txalogaŕijak ei-dira ixan be.

## "El Liberal"

Bilbao'ko kaya bide dala England'en soŕtú ixan dan auzijatzaz idazten dau onek.

Samuel Hoare altseñak erantzun ixan dabenari ez deritxo.

Era ofetako erantzunetan ibiliŕa, egijagandik uŕunduta ibili gura ixatia lez ei-da.

Hoare jaunak esan dauanez, Franco keneral etoyari agindu au emon ei-dautsoe: itxas-lapuŕ-antzo dabiltzan Franco'ren gudontzijak ezegaŕik be ez dautsela oldaŕtu biaŕ England'eko ixontzijei.

Hoare altseñaren erantzun-era au, makal-samaŕa dala-edo uste dau, afko-maikuetako erantzuna dala-ta.

England'eko ixontzijei azkatasun gustijaz oldaŕtuteko aginduba emon ezian, emon ixan dauana baño makalagorik ezin emon e'-ikian Hoare altseñak.

Hoare altseñaren erantzuna osokua ixateko, beste zertzelada oneikaz osotuta agertu biaŕ ei-zan: England'eko ixontzijak, España'ko Efkala'k aginpidia daukan kai gustijetara elduteko azkatasun osua daukela, ta jauŕlaritza-laguntzea be bai.

Azkenengo zertzelada oneik, baŕik, Hoare jaunaren erantzuna makal aurkitzen ei dau.

## "Tierra Vasca"

Efekete ta palankistaŕen aŕtian ezpai aundijak soŕtuten dirala diño, ta ezpayetatik buŕuka-ekintzetara elduten dirala.

Guk, baña, arerijuen aŕteko ezpai ofeik, ez ei-doguz eredutzat aŕtu biaŕ.

Eŕiketea buruz, Alderdijen egaŕija, alderdikide asko egitia ixaten ei-da. Gudaldijan egiten diran alderdikidijak, baña, geyenetan beintzat, afisku-aldijan Alderdijak lagundu dagijuen, edo bitaŕtekotasunen bat ixan dagijen egiten diranak ixaten ei-dira.

Era onetako alderdikidijak, baŕiz, eurai ondo yatoŕkijuenian ainka egiten ei-dabe, euren bijotza ta gogua dagozan lekurantz igituteko.

Aldi au, ez ei-da zabalgunde-aldija, gudea irabazteko aldija baño. Zabalgundija egiteko geŕo etoŕiko ei-da: gudea irabazija.

Eta orain, gudari gustijak gudoñetan alkaŕtuta dagozan aŕtian, guda-atzetikuak be, alkaŕtuta egon biaŕ ei-dira, eta ez efekete-palankistaŕak dabiltzan eran bata-bestjaz buŕuka.

## 'Euzkadi Roja"

Igazi dan egubeneko paxiotaŕ egazkiñen eten bako oldaŕketeatzaz idazten dau. Sei aldiz etoŕi zirala diño, eta seiretan iges-egin biaŕa ixan obela. Baña ez eurak gura ixan eben gustija eginda, eŕija aldeztuteko dagozan egazkiñak uxatuta baño.

Sei etoŕaldijetatik baten be ez ei-eben Bilbao baruban suaga-berunbilik bota.

Bilbao'ko biztaljak, baña, oŕi gora-bera, ernai bixi biaŕ ei-dira, uŕengo aldija biaŕba Bilbao'rentzat ixango dala-ta.

Igeslekubetan uaŕtu biaŕ litzakezan uaŕkaj batzuk be agertuten dauz. Paxiotaŕen basatikerijak, diran ezeskaŕijak diralako, gaiztetsi egiten dauz.

# Maŕaska

Oŕ datoz egazki baltzak
Sustatzen txadon ta bastaŕak
Oŕ datoz areriyuak
Zikiñak eta gaiztuak.

Beti goŕotoz beterik
Geu beti il gurarik
Baña ondiño bizi gozak
Euzkalefi aldetik.

Gaŕa ilten-da gizonak
Baña biotzak bizturik
Eztozu gauza oŕik
Beti goroto beterik

Zuek paxista zitelak
Gu euzkotar zintzuak
Ta euzko lege-zarak
Zaintzen euzkaldunak.

Ez uste izan paxistok
Ondo uŕengo zuenik
Ezin astu zuen txaŕak
Zekula euzkotaŕok.

Aguŕ Franco praka barik
Eta Mola moŕu barik
Queipo Koipe barik
Ta Oriol oŕio baŕik.

Aguŕ ba danori plastadak
Ezkun pistola utsi barik
E... laster izango gozak
Danok diru asko barik.

UŔI

# GUDA-IDAZKIAK

Aguŕ, adiskide: Elkar-beŕi gabe geŕala-ta, idaztearj lotzea eman zidak buruak. Etxeko beŕiak jakin erazi nai bainizkikek.

Gogo-itunduta nauk. Aspaldidanik, naigabe-loreak ernetzen ditu izan ere gurean. Ain aispaldiko dituk atsegin-egunak...

Ezin ordea kikildu. Orduntxe jetorkik betirako ondamendia. Kikildutzetik alegia Naigabe-beltzenei arpegi-emanda ere bazegok naiko lan.

Bestaldetik, ¡nola izan ez naigabe! Bai baizijoazkiguk adeskide miñenak. Edo obeki esan, guda zitalak zeramaizkik. ¡Biotzik ez aldik izango gudak!

Nabaitu bear dizkiagu pranko utsune. Alberdi ura, Mikel, erori zitzaiguken lenengo. Ondoren, "Urdiña", Gorostidi, Gimon'daŕ Xabier, Ufetabizkaya'taŕ Bitor... eta ainbat geiago. Gaur, egunotan, uŕiagotua dek gure lagun sendia.

¡Juxto eta Patxi erori dituk!

Odol-egaŕi dek gure lur maitea. Abeŕtzale jatoŕenen naiean dek ain zuzen ere.

Juxto erori dek. Bastaŕika'taŕ Justo renak egin dik.

Patxi erori dek. Elustondo'taŕ Patxi'renak egin dik.

Ona nola bildu zituan eriotrak bere maindira izoztuan:

Alkaŕekin izanituan Justo eta Patxi gau osoan. Gau osoan etsaiari agiñak erakusten. Gau osoan lur bustiari josita. Gau osoan izkiluari besarkatuta. Etsaiaren eraso gogoŕari arpegi emanka. Gauaren ilunean Euzkadi zaintzen.

¡Araba'runtz begira dan malkar ura iztun balitz!

Goizaldean, jolailaren 4'gaŕenez, Araba'ra begira dan malkaŕean, jaiot-eŕiaz itz da pitz ari zitzaizun gudari talde bat. Berontan Juxto eta Patxi.

—Gure eŕian egin bear dizkiagun aldaketak...

—Biaŕko Tolosa ez dek atzoko Tolosa izango.

—Ez gatxebiltzak alpeŕik nekeak bizkaŕa zamatuta.

—Egun goŕia zeukatek zenbait azalutsek...

Ordu batzuek geroxeago, gorputz ziran Juxto eta Patxi.

Bata, bizkaŕezuŕa apuŕtuta. Bestea, luŕari soña josita.

Gudaren lenengo egunetik gudari ziran bi gazte lerdenen bizitz-aria etena zan.

Ona: uŕiagotuagoa dek gure lagun arteko maiean exeriko.

¡Ainbeste lagun-arte izango dituk gurearen gixara!

Adiskide, josi ditzaizkiogun belaun-koskoŕak luŕari. Kristauari dagokionez. Lagunari dagokionez.

Justo eta Patxi ziranen gogo-alde, "Aita gurea..." ¡Betiko argiak dizdira bekie!

Aguŕ, adiskide. Elkaŕen beŕi izaten al diagu laister.

UZTUŔE

# Bizkai baŕuko nekazariari

Egun gaŕatzak igaro biaŕ izan ditu nere biotzak, igaro diraden amabost egun ayek; arentza gogoŕak zuŕtu dute albo guztietatik; saŕi eldu da nere begietara, negaŕ eta naigabearen malko mardula. ¿Eta nola ez, au dana gertatu ikustean ainbeste naigaberekin, buru makur gure anai nekazariok?

Bai. Negaŕgaŕia zan ikustean, guda madarikatu au dala bide, gure guda agintariak eman zuten aginduaa nekazarien etxietara iritxi zala: 'Egun bat edo bi baŕu, zure baseŕia utzi, eta zeure sendi abere eta tresna danakin atera biarko dezu zure etxetik.

Itz gogoŕak benetan agindu oŕen itz oyek; bere sendiaren, guraso, aitona edo biar bada, sei edo zazpi gizaldi ayetan, bere kopetako izardiarekin ugartuaz, bere sendiarentzat kabi baketsu at egite aŕen, bere biotzeko maitetasun dena jaŕi izan duen sendia, baseŕitik, ordu gutxi baŕu urten biaŕean arkitu da.

Or ikusi ditugu bide 'aztaŕetan, ainbat eta ainbat sendi nekazari, nora juan ez dakitela: bein bañan geyagotan, gure biotza apuŕtuta utzi duten ikuskizunak gertatu zaigu; beren abereak, uzbaŕtuta ill turtela, gurdian sendia aruta or dijoa gure nekazari apala, burua makur, oldozkor eta guztiz tamalduta; galdetu zavozute. zergatik eta nora dijoan eta eran tzungo d'zute, bere biotza minduta duen izate batek erantzun lezakien eran.

Batek bañan geyagok bere baseŕitik urtetian bere begiak malko mardulez beteta agur egin diote beren bizilelu izan dan kabiari era onetan:

Agur nere biotzaren itxadopen guztia nuen sendiaren gorde leku izandu zerana; etzai maltzur eta odolzale oyek nere sendiaren azkatasuna kendu eta odola ixuri nai dute; bañan ni eta nere sendia izango gerade, beste asko bezela, etzai oŕi betiko menderatuko degunak; negaŕ da gite nere basetxeko orma zaŕak atzeŕitaŕ odolzale oyen egite okeŕak ikusita; bilduŕ naiz etzai ofek berak digun gorotoarekin bifinduko ez ote diruen gure basetxeak, bertara irixten bada.

¿Nora zuaz bada anai atzekabetua?

Bizkai baŕuan baditut beste ainbat anai nekazari, eta oyen biotzeko maitetasunaren bila noa, berak lagunduko didaten itxadopenian.

Ara emen Bizkai baŕuko nekazaria, nun datorkizun zuregana, beren etxe, lur bertako ainbat lan egindako, askotan bere abereak, eta geyenetan sendiko tresnarik geyenak bertan utzi eta, zure laguntasunaren itxadopenian, ainbat nekazari, Zeanuri, Dima, Yurre, Aratia, Otxandiano, Aramayona, Arasate, Arazola, Apellamonasterio, Axpe-Marzana, Abadiano, Elgeta, Elorio, Eibar, Markina-Etxebaria, Beŕiatua eta beste eŕi batzuetatik.

Gogoŕa da berak dakarten naigabe miña. Zuentzat Bizkai baŕuko nekazariontzat, orain arteko gudate onek, nekazari bezela, mesedeak ekaŕi d'zute; zorionez ez dezute izan guk Gipuzkoa, utzi biar izan genduen eta duten anai, eta aitatu ditudan Bizkai'ko eŕi oyetako nekazariak bezela, beren aberastasun edo gauza denak ondatu eta ikusteko zori txaŕik: askori eta askori beñere amets egin ez zenduten ainbat txindi ekaŕi dizute zuen eskuetara; asko zerate gudate au orain arte, guztiz ondo etoŕi zaizutenak; tamalgaria da beretan zuenga zuzentzen dan anai nekazariaren gertaera.

Nik, nekazari bezela, eta naigabez biotza minduŕako nekazari batek bezela, eskaera biotzkor bat egingo nizute Bizkai baŕuko nekazariori.

Asko eta asko baseŕietara zuzendu biaŕ izan dute onela etoŕi diraden nekazariak, beren bei, txekor eta ardi'akin; negargaŕia izango litzake anai oyeri, zuen etxeetako ateak ixtea, edo idikitzen baŕiozute ere, begiratu txaŕarekin artzea; bai ta ere, nere uztez, ez litzake izango egoki, zuek ematen diozutaŕ belar edo laŕen bere aberientzako, ordaindu eraztea; badakit, zuena dala esango dezutela; bañan etzenduteke agertuko euskaldunok degun izen onaren ikuŕitza: "Euskaldunak, batek duena, denena da".

Negargaŕia izango litzake, zuek, egoki eta efex txindiz ornitzen ari zeraten bitartean, guda au dala bide, beste batzuek eta biar bada Euzkadi'rentzat odol geyago eman dutenak, naigabe eta tamalen artean dena galduta ezer gabe gelditzea.

Eman zayozute bada, anai nekazari nai gabetu oyeri, zuen baseŕietan beren aberientzat lekua eta jana, ordaindu biaŕik gabe, onela era'custeko, zuen ayuntasuna.

Etzaiztela gertatu arako ezaera zaar ura gogoratu biaŕian: "Zuek neurtzen dezuten neuŕi berarekin neurtuak izango zerate."

EZTANDA

**"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALEA, UZKURTZ ALDEZLE ZINTZOA DA. IZANGO OTE DA EUZKOTAR KISTAR ZINTZORIK LAGUNTZA UKATUKO DIONIK?**

EGAZKIÑAK DIRALA-TA

Paxiotaŕen egazkiñak, gudea buruz euren aldez ezer iraba'iko ez ba-daba be, eŕijak zuzitu ta biztanliak urduŕituten ibiliko dira beñepein. Onelariko eguna, igazi dan egubena ixan zan.

Igazi dan egubenian, bata bestiaren jaŕai, sei ikeŕtaldi egin euskubezan Mola gixagaxo etoyaren egazkiñak. Etoyaren ikeŕtaldijak, iguingaŕijak ixaten dira, baŕiz. Eta ori dala-ta, ezespenez aŕtzen dira. Urduŕitasuna, baña, iñok be ez dausku kentzen, Mola koldaŕ aŕkeŕarentzat ezespen geyago, ta bakotxaren kiriiuetara be, urduŕitasun geyago ekaŕi baño.

Aiatutako egubenian, Mola etoyaren alogerekuak egazkiñetatik jaurti ebezan suaga berunbilak baño, notiñen neuŕi bako urduŕitasunak esturaldi laŕijaguak emon eutsezan askori. Esturaldijak bide, zauriŕu be egin ziran, ba, ta il be bai aurki.

Zijo bako urduŕitasuna bide dala il biaŕ ixatia baño, suaga berunbilak jota iltia, ¿bidezkuagua ez ete-da, ero?...

Ona, emen, jazoteko zijorik ez eguan jazokun baŕegaŕija baxen negaŕgaŕija. Begoña'ra igoteko dagozan aŕizko maladijak-gora igoten asiŕa laster, igeslekubatera juateko bidia egin dabe. Eta be-ŕian aurkitzen dan igeslekura jastekolatsunezko maladi batzuk dagoz. Maladijoik unerik-unera, lau-bastoneko zabalunia dabe. Eta ain zuzen be, jazokun onen jazokundia, zabalune aretako baten ixan zan.

Asaldaturuta entzun zanian, urduŕitasunak itxututa, bata-bestia aoŕtubaz alkaŕ galdu biaŕian baŕurantz egiten asi ziran notiñak. Alako baten, esturaldirik aundijenian, geuk be zelan ez dakigula, oñak us-egiñda jausi-egin zan. Eta luŕera jausiŕa geratu zan arek, atzetik juan ziranak be, bere-gane bota ebazan. Eta aren gane, beste batzuk... Ni be, antxe jausi nintzan. Eta nire gane, bestatzuk eta bestatzuk. Azkenerako, gixa-meta aundija egin zan. ¡A lako esturaldirik!...

Kiriiuak ariñegi bizkoŕtuten yakazan gixakija, olako esturaldijetan, zaldi erotuba baño be eruago egiten da. Ad'mena ilundu-egiten yako; begijak lausotu, ta zaldi erotubaren antzian itxumustuban edonorantz egiten asi. Igazi zan egubenian jazo ixan zana be, oŕixe zan: urduŕitasuna, erotasuna, itxutasuna.

Gudaldi oneik, kuŕijuak bixiŕuteko lako aldijak dira, ixan Mola bijozgiak uŕi ta basurijetara b'daltzen dabezan egazkiñak, edozeñeri bilduŕa saŕtzekuak lakoxiak dira. Bilduŕa ta urduŕitasuna, baŕiz, ixan leikezanik arerijorik eixafenak dira, kalterik-kaltienak egiten dabezenak.

Asalda-turuta entzuŕa batzurentzat, eŕijotzearen eiztua idunian ikustia baño be bilduŕgaŕijagua aurekuari ez atzekuari begiratu barik, zaldi-ero-antzo bultzadaka auŕerantz, egiten iñardu.

Eta gero, igazi dan egubenian jazo ixan zana jazo biaŕ: atzekuen sakiaz aurekuak bota, ta jazo biaŕ ez litzaken jazokun negaŕgaŕija jazo-azo.

Jazotakuak jazota dagoz, baña. Orain, ikusi ixan dana ikusi ondoren, baŕiro jazo ez dedintzako neuŕijak aŕtu biaŕko dira. Igesleku-saferetan, zaintzale arduratsubak jaŕi biaŕ ixango dira, urduŕitasun barik bakotxari baŕurantz-egin-azoteko.

Oŕi egiten ez dan aŕtian, jazotako lako jazokunak saŕi jazoko dira. ¡Bai bein!

ERE BO. DATXOTIK

# Bildutako sortatxoak

Egoaizea baño afoago zan mutil koskoŕa.

Beŕi buŕukarako gertu. Batj ortzak autsi bear zizkiola, besteari ez dakit zer egin bear ziola.

Bere urte modutako gazte apal batekin gertatu zan beingoan. Sua piztekoŕ etzuan denbora askoren beaŕik.

Mundu guztijk, buŕuka ta drogaŕik nai etzuan gazte apal arekin katiatu bear, arekin indaŕak neurtu bear.

Anai zaaŕa ere bere modukoa oŕaatik.

Gazteak zerabiltzkin eŕonka ta afokeriak ontzat arturik, gazte apal ura noŕa menperatzen zuan ikusi nai zuan.

Jende mordo azi xamaŕa batu zan.

Mutil biuŕiak egiten zizkion isekak iñola ezin iraun denbora gelagoz. eta ekin diote buŕukari.

Bestea lotsatia zalako edo, lenengotik biuŕia nagusi antzean agertzen zan. Anai zaaŕak eta bere aldekoak jotzen zioten txaloŕ ederik.

Apala ere guziz berotu zan beingoan, eta ekin dio il edo bizi. Alek esku zeaŕkak, eta alek zartadak...!

Trapu zaŕa bezela zerabillkin biuŕi afoa, ta anai zaaŕa ta bere aldekoak mangoa zearo aldatu zuten.

Etzan lengo txaloŕ ta igoraŕ otsik entzuten.

"Pakea, egin bear da", "apartatu egin bear dira", au ez da "kuixidadja" ta. Ikusiz gañera e...?

Bapo zeok!

Eskuartean degun guda auzi jatz onekin auxe bera gertatzen da. Azaroan asi ziran Madrid artu bear zutela egiñaz asaldariak. Atetan zaudela, ordu gutxiko lana zala, ta ez dakit ortako zenbat ipui.

Sei ilabete aundi igaro dira ura zala, ta orduan zauden baño ondotxo atzerago daude. Ta oraindik atzeratu bear dutena gañera...

Guadalajara inguratun artutako jipoia sendatzen lan aundia daukate oraindik.

Eta angoa sendatu baño-len Teruel ingurutan lengoaren antzekoak artzen ari dira.

Aragoi aldeko guda-oñetan zer esanik ez beŕiz.

Euzkadi'runtz dituzten auŕerapen guziak, eta dituzten gizonik ausartsuenak ekaŕi dituzte.

Eta bi metro sail artzeko, miiaka batiko zefaldo geldi zaizkiote.

Atzekaldea guziz ondatua daukate. Estasunera eltzeko dei laŕjak egiñaz diardu Franco'k.

Diru kontuten beia jo dute. Iñork zer opaldu nai ez diotela laister dira.

Luŕeko indaŕez eŕia askoz geiago dala ba-dakite.

Gobiernoaren gudarostea askoz indartsuagoa dala ezagutu dute. Goitik beŕiz gure "txato" olekin saŕtzerik ez dagola sinistu dute.

Gobiernoaren itxas-ontziak lo zorotik esnatuta egundokorik bikañen eraso diotela ikusten dute baitare.

Aleman eta italiataŕak Franco'k txataŕ zaŕak aña ez duala ballo diote. Eta Franco'k beŕiz, Itali ta Alemani'k bear ainbat ez diotela laguntzen—dio.

Edozeñek azkatzen dik korapilo oriOrain guzia era ortan gainbera sentidutenean, pakea eskatuaz asi zaizkigu. Itali ta Alemani ere ortarako gertu ote diran... danontzat obea izango ote dan... Kanpotako diruzaleaŕeraño guziak kantu oŕekin asi zaizkigu.

Canterbury'ko eleizpuru agurgaŕiari asmo ori agertu dio Mr. Churchill konserbadoreak.

A bai e...?—esan dio eleizpuru agurgaŕiak—estropa zeñek iraba'iko duan ziur ikusitakoan urteera galerazi. Gobiernoa garaile urtengo dala argiro dagon-an pake bila. Bapo zeok!

Ez du ez afazoi paltik Canterbury'ko eleizpuruak.

Gobiernoak ez arma ta ez ezpen zuan garai artan, etzuan iñork ezer esaten

Igandero eŕiak artu ta mezak aroki abestuaz, Kanpalak bufundatsu dantzatuaz zabiltzan denbora artan, etzan pake eskaririk.

Oraindira emen olako kontuak, baña besteak ere ez dituk tontuak.

Mutil edesiak eta onek ez al dute antzik?

Ba dakizute egun gutxi dala Prieto jaunak zer agiri argitaratu zuan. Kon, troi gaiari buruz gure itxas-ontziak nola jokatuko diran garbiro azaltzen zuan. Erkai ikuŕiña damakitenak bear dan begirapenez artzeko, konpiteak marke...

Agiri ori euskaldunori gogozko izan zaigunik ez degu ukatuko. Ortak erakutsi ezean, agiñak erakusten baidituzte besteak.

Prieto zoriondu ta goraldu asmoa egiteamar mila notin edo pertsona ibili omen ziran lengoan Valenci'ko kaletan. Egun ortan bertan Donosti'ko kaletan miiakak ibili ziran, baña es iñungo ministro ta agintariak goraltzen, rekete ta paxistak alkaŕi tiroka erasotzeko eran berotuta... Alde edefeko kontuak dituk aŕaiotan!

BASARI.

# Donosti Buru Batzaŕa

"Kizkitza,ren (G. B.) idaz-lanak argitaratzeko Donosti-Buru-Batzaŕ asmoa beterik, zabaldu ta dagon aŕpidearen jaraipena.

| | |
|---|---|
| Oraindañokoa, laurieko ... | 4.326 |
| Aranbe'taŕ Imanol... ... ... ... | 5 |
| Araba'ŕ ba... ... ... ... ... ... | 3 |
| Go'mendi'taŕ A. ... ... ... ... ... | 1 |
| Goimendi'taŕ B. ... ... ... ... ... | 1 |
| Zarautztaŕ bat ... ... ... .. ... | 2 |
| X. X. ... ... ... ... ... ... ... | 2,50 |
| Goieŕi ... ... ... ... ... ... ... | 5 |
| Gurutxaga'taŕ L. ... ... ... ... | 1 |
| Oraindaño ... ... ... ... ... | 4.346,50 |

ATZERRIKO IZPARRAK

# Alemania Italia'ren kezkati onek Austria'n ziria sartu dautsolako

## Alemaniaŕak uste dabenez italiaŕak arpegi biko dira.-Alemania eta Inglateŕa'ren arteko adizkidetasuna otzitu.-Miña baŕiak aurkitu ditue Alemania'n.-Laŕien egoan unean azalera atara dabe "Mar Caribe" ontzia. - Miaja'k Franco'gaz traturik nai ez. - Beste izpaŕak.

**ALEMANIA'REN ETA ITALIA'REN ARTEKO KEZKAK**

Londres.—"Daily Herald,,'ek diñonez Roma'ren eta Berlin'eren artean, be, turmoi-otsak entzuten asi dira ta Alemania'ren eta Inglatera'ren adizkidetasunoi aus'-agiñean dago; orixegaitik duaz Roma'ra Goering eta Neurath.

Alemandaŕak uste dabenez italiaŕok arpegi biko dira, 1914'gngo. gomuteak eta beste ostikada batzuek, lagun baŕion burubideak kezkaz agertzau dautsez.

Eurok egin eben itunbenaren indaŕez, Mediterraneo'ko aginpidedun Alemania'ren laguntzaz Italia izan beaŕ leuke ta Danubio'ko Luŕaldeetan ostera Italia'ren oneroztez Alemania buru

Mussolini'ren eskabidez España'n ainbat gizon eta dira eralgi ostean, Austria'n Italia'k ziria sartu dautsola ikusi dau Alemania'k, Europa Erdialdeko 5 lateŕiren alkarŕze edo batzaŕtzeak artegatu egin ei dau Mussolini ta 1934'gnez, eskiñi eutson laguntzea, orain, be, emongo dautsola azalduko ei dautso Schuschnigg'ari. Oŕetxen bildur da Alemania.

**LIMITROFF'ERI EZ EI DERITXO ONDO**

Moscu.—Inglatera'k eŕegearen bureskunde jaletara Rusia'ko ordezkariak uazalako bere asaŕea agertu dau. tso Stalin'eri Konmiter'ko Idazkari Nagusi Limitroff'ek.

**ZAINTZAILEEI IGESI**

Donibane Loitzun. — Inglateŕa'ren itxas-zainketak-zainketa beste inglateŕar itxasontzi batek zaintzaileoi iges egin dautse ta efkaldaŕen portu batera, Musel'era eldu da.

**MISA BAŔIAK IDORO DABEZ**

Berlin.—Meatztoki baŕiak idoro dabez ta ugariak idoro be. Kolonia'n bardin-miñea idoro dabe ta aituak aitzen emon dabenez euneko 52 burdiña dauko. Kolonia inguruetan magneso-meatza idoro dabe ta euneko 25 magneso ei dauko. Meatz oŕeitan lanean beingoan asiko dira.

**MUSSOLINI'REN SEME BAT EZKONDU**

Roma.—Mussolini'ren seme bat laster ezkontzeko da. Ori dala ta españar paxistak, italiaŕak egiten dautsen laguntzea eskartzeaŕen, ezkon-sari eder bat emongo dautse.

Paxisten menpian dagozan eŕirik geienetan aŕpide bat zabaldu da ezkon sari au egiteko.

Españar erako lan bat izango ei da.

**IZPAŔINGIRIK EZ**

Paris.—Izpaŕingi argitaldariak erabagi dabenez, Mayatza'ren lenengo egunean ez da izpaŕingirik eta aldizkingirik egin eta argitalduko.

**FRANCO'GAZ TRATURIK EZ**

Copenhague. — Miaja gudalburuak agerpen batzuk egin dautsoz "Politicken" izpaŕngiaren ordezkariari. Franco'gazko jardunik ezin daikela bururatu esan dautso eta gudea eŕepublikearen garaitzeaz amaituko dala.

Paxistak urian ezin jagi daikezala ta gudea ila biren buruan amaituko dala adieraz, dautso izpaŕiari oŕeri.

**LAŔIEN EGOAN UNEAN ATARA**

Paris. — Ur-gaiñean ezin ipiñi al izango ebela uste ebenean ipiñi eben ur-gaiñean "Mar Caribe" españar itxasontzia; atzo gabaz izan zan ori. Argel'go portura eldu zan eta portura ziranean ontziburuak efkaldaŕen porturen batera zuzentzeko asmoa eukala azaldu eban.

**VENECIA'RATU DA SCHUSCHNIGG**

Venecia.—Erbeste-arazo Arduradun Schmidt lagun dabela Venecia'ratu da Schuschnigg kanzillera: beste agintari batzuk, be, eldu dira. Starace ta Alfieri ministroak ta Mussolini be laster elduko zirala uste zan.

JEL

## GUDIA IRABAZI?

Lengo egun baten Otxandiano inguruetan ainbat egunean gudan joaldi gogoŕak igarota etxeratu dan gudaŕi bategaz itz egin dot. Zer esan ugari eukan. Adoretsu etopen. Arerioren bildufik ez eukan. Ta arek baño gu geyago be esan eutsan.

Euren buru gainean befogei ta befogeta-mar egazkin beruna ta sua jaurtzen ikusi ebazala aldi luzean esan eustan. Ta Jaungoikoak zaindu ta iltzea zor ixan eztodalako emen nago bizirik, jafaitu eban.

Gero neure baitan gudariak esan eustazan itzak goguan nebazala eta eurak gogartuten negoala, bere itzak benetan gomutagaŕiak eta ikasbide aundikoak iruditu jatazan. Jaungoikoak zaindu ta iltzea zor izan eztodalako bizi naz. Ze egi aundia!

Ainbat lagun dabil oingo egunetan egazkiñak dirala ta igeska ta estu ta laŕi. Ondo egiña da ori eta guztiok alegin egin bear dogu oŕetan. Baña zenbat lagunek eurak ondoen dagozala uste dabe tokian bertan eriotzea aurkituten daben. Auŕeragoko egun baten bultziaren tunelean egozanak bultziak il ebazan. Eriotzearen igesi eriotzea bilatu.

Gure aitatutako gudariak esaten eban lez laungoikoak jagon ezkero eztago bildufik. Norbere aldetik al dana egin onboren beragan ustea ipiñita ipiñita bizi bear gara ta zainduko gaitu. Kistaŕak garianok ondo dakigu gure arerioak Jaunak izentau dautsen tokitik ikararik be eztabela egingo.

Gizon bakotxa Jaungoikoak zainduten dau, ta estu ta laŕi dabilenean edonor Beragana biurtuten da, laguntza eske. Ifiak be Jaungoikoak darabiltz batera ta bestera, eta saŕi askotan guk okeŕak dirala uste dogun bidetatik eŕiaren zoriona ekarten dau. Zergaitik ez ba estu aldi bat eŕiari jatorkonean eŕiak beragana igon eta goiko laguntza eskatu?

Gudea irabazteko baña laguntzarik edeŕena be Jaungoikoa dala egi aundia da. Daigun euzkotaŕ eŕiak eŕi lez Jaunari otoi egin ta zeruko laguntza lortuten dabela. Gure arerioaren alegiñak alpeŕekoak izango dira ta egazkin ta kañoak ugari izan aŕen eztabe garaitzerik lortuko.

Gaŕantzi aundiko gauzia da ba Euzkadi'k eŕi lez otoi egitea. Eŕi lez Jauna bere nagusitzat autortutea. Bide ori izango litzake zigur zigur gure gurendearen amaia ekaŕiko leukena ta garaitza edeŕa ekaŕiko leuzkiguna. ¿Noiz asiko etc gara siñesmendunaz lez zerura begiratu ta goiko laguntza eskatuten, gure abeŕia zaindu dagian ta zorioneko egin dagian?

MENDIONDO

GUDA-BARRUAN

## Maŕuekotar gaixoei egindako eskintzak.-Goserik euki ez ba'lebe moruak etziran Franco'gana juango.-Larache aldean eŕepublikearen aldeko talde mardulak dagoz.

**MAŔUEKOTAŔ GAIXOEI EGINDAKO ESKEINTZAK**

Londres. — "News Chronicle" egunkariak bere izparkari Philip Jordan'en idazlan bat agertu dau, "Franco'ren alde mairuak goseak eroan zituan" izenpuu dauala.

Afrika'n Franco'ren aldezko ezer bikaŕena eztira izan ez alemanak, ez italiaŕak giroa baño. Iradan iru urtetan, ekaldeko luŕetan leŕte andiak izan dira. Uzta ta aruari uŕi izan da, eta oi dabenetik, laugaŕen artea egin dou euririk.

Urtèaro onetan, musker eta berde agiri izaten zan luŕaldea, basamortu mingots, idor eta gatzduna dogu. Luŕ-ganeak aizeak nastau eta bultzaka eroan daroiaz, zugazki ez landarerik ez dalako.

France ta España agindaritzapeko luŕetan, sortaldeko gizeli ta taldeak gosez dira oso. Luŕ emonkor genduzan lekuetan, orain ordea, gizon makal eta ume goseti ta andre indargak ikusi ditut. Gixagaxo auek dirua zer danik ere ia azturik dagoz.

España'ko geŕea asi zanean, Franco'ren moroiak dirua eta aŕapakiñak eskeñi eutsezan gizon gosekiloi. Ez-jakin eta gosekiiok, luŕetan leŕte andiak izan dira. Uzta ta aruari uŕi izan da, eta pozik aukeratu onena eritxoena.

Maŕueko'tan izpaŕak berealakoan zabalduten dira, prantze-españar agindaritzapeko luŕaldetan bizibide oŕek jendea poztu eta piztu egin eban. Gudea asi zanean, gabaz, sorkaldeko gizataldeetako gizon piiak mugak zear igaretzen ziran, eta españaŕen luŕaldetara sartu, eta abintza eta eskeintzak liiuratuta, españaŕ paxisten alde gudan sartu ziran.

Gudarien zaŕketak gorabera, ta batzutan eurok lagunduta eŕi osoak igaroten ziran. Baña gobernu pantzetaŕak emondako laguntasuna baño gitxiagogaitik euren bizigk aŕiskuan ezaŕi bear ebela jakin eben, itunez.

Gauzak aldatu dira baiña orain. Euren biziak gaibidean euki ostean, esku-utsik duaz gizonok euron basamortura ta basamortu oŕetan ezin daike eurontzako janariŕin lortu.

Prantzia'ren agindupean dagozan Maŕuekos'ko sail menditsuetako basetxe baŕu baltzetan Franco'ren alde gudan ibili diran moruekin baŕiketaldi batzuk egin dodaz ta eurok ebezan usteak usteŕ urtenik adorekatuta agertzen dira. Etxeetatik urten eben baneka batzuk biurtu dira ta beste askok egoalderuntz iges dagie.

Epailaren 25'gn. Tetuan'en sortu zan matxiñada-kuxumea, Franco'renganako sortu yakoen goŕoto edo asaŕeak sortu eban. Bur-bur asaŕez irakiten asi ziranok baŕetzeko ta aginpideari eutsi al izan eikeon, gudari zuri taldeak kaleratu beaŕ izan ebezan.

Zuriok, be, baiña menpeko-menpeko ez yakoz Franco'ri; zuririk zintzoenak España'n beaŕ dauz; besteok aurka jagiko litzakez ta matxiñada zale dira baiña, ezertan ausartuko ba'litzaz, beingoan garbituko leukez-ta, menpeko iraun beaŕa dabe. Lapuŕa lapuŕ-zaintzen ipintea da ori.

Franco'ren agindupe dagozan Maŕuekos'ko sailotakuak matxiñada zale dira izan eta Prantzia Gobernua'ren alde asiko ba'litz, Maŕuekos'en befogetazortzi orduren buruan egundoko matxiñadea sortuko leuke.

Prantzia'k Maŕuekos guztia beretzat nai dabela aitzen emon izan dau Franco'k, baiña ori guzuŕa da. Bere agindupean dagon Maŕuekos'ko sailean bakeari eusteko ta matxiñadarik sortu ez daiten 13.000 gudari daukaz ta olan eta guzti, be, Franco'ren aginpiderik ez dabe onartu nai askok.

Laratxe aldean erkaldaŕ Gobernua'ren aldeko diran talde mardulak dagoz tokian-tokian.

IRITZIKA

## Londres'ko batzordeak eratutako lateŕi arteko gudontzi - taldeak itxas - kanpoan españar itxasontzirik atxilotuko ba'luteke, ondoren okeŕak sortutea ba'liteke.

## MINIFIC'EN IDAZLAN BAT

Paris.—Uri ontan dagon James Minifie izpaŕkariak idazlan auxe bialdu du:

"Londres'ko Batzordeak eratutako lateŕi arteko gudontzi-taldeak itxas-kanpoan españaŕ itxas-ontzirik atxilotuko baluteke, balitzakela ondoren okeŕak sortzea oar egin du gaur Alvarez del Vayo'taŕ Juli'k.

Bein eta beŕiz esan zuan beste onako au ere. Gudate-ontatik España'k loŕez jasoko balu bere burua eta, bere ustez, europaŕ lateŕien oker-jokabidez, "ez-sartzeko" politika dala-ta, ez luke efaz zuzenduko España'ko Erkala guziai on izan lezak'en bide ziuŕetik.

Valencia'n, Gobernuaren jaurtokian, egin zizkion azalpenok Alvarez del Vayo'k "Le Temps" Paris'eko izpaŕingiko izpaŕkari bati

"Bilbo'ko esiari buruz Inglatera'ko Gobernuak uŕatu duan bideak jaiki-aldi gogoŕenetakoa sortu du emen. Bestetako erasoai antzo, paxistaŕak Bilbo'ren aurka asitako erasoari ere egun gutxiren buruan ezaŕi diote esia eta españaŕ eŕia, Franco, izkiluz irabazi ezin zuana gosez lortzea nai duan paxistaŕ gudalburua, Inglatefaren babesean dagolakoan dago."

Del Vayo'k argi ta garbi ezaldu zuan berak beti Frantze ta Inglateŕa'ri bere burua uŕeratzeko politika-bidea jo duana.

Alderdiak alkaŕ-batzeko Franco'k eman duan aginduak ere argi dager euren artean gauzak estutzen asi dirana, guda-oiñetan ere zoritxaŕa baiño ez dutela lagun izan-eta. Luŕ-jota dute politika-joko guztia. Italia'k laguntzen dien karlatafak, Alemania'ren aldeko paxistaŕak gainduta gelditu dira. Aurpegi onez jasoko ote dute erabaki ori?

Españaŕ Gobernuak, guda-oiñean eta guda-atzean, lortu duan bizitasuna, Artu-Emaneko ministruak azaldutakoa bezelakoxea da eta izpaŕkari onek España'ra joan-etoŕia egin ondoren iritzi dion berdiñekoa. Gobernu-aldeko batzaŕetan, giro alai nabari da. Bi ilabeteotan alaiagotu egin dan giro onek, erkaldaŕen geiagoko egazkiñetan eta ain egoki eratutako bi gudarozte ditu oiñari; Madrid-inguruan diarduana gudarozte bata eta Cordoba-ufean bestea.

Izpaŕkari onexen aufean esan zuan beste onako au ere Vayo jaunak:

"Ainbat bizitzaldiren buruan, oraintxe du España'k jenengo aldiz bere buruaren babes dan gudaroztea."

Ondo dakiten batzaŕetan diotenez, karlatafak eta falangetafak alkaŕ onik ezin ikusi dutela-ta, alkaŕ apuŕtzeko ten-tenean daudela esan zuan azkenez Alvarez del Vayo jaunak.

## IZPAR MARDULAK

**JAPONDAŔ EKONOMILARIAK LATEŔI-BATUETA'RA TA INGELATERA'RA**

Tokio.—Japondaŕ ekonomi-arazo Zuzendari-Ordezkaritzaren Lateŕi-Batueta'ra ta Ingelateŕa'ra osterea dala-ta, Erbeste-arazo Arduradunak egin daben itzaldian, saleroskeia askatasun osoaren alde agertu da jaunoi.

**FARUK, EGIPTO'KO EŔEGEAREN BURESKUNDEA**

El Cairo.—Europa'tik Egipto'ra daitenean, dagonilaren lenenguetan izango da Faruk Egipto'ko eŕegearen bureskundea.

**"NEW CHRONICLE"REN ERITXIA**

Londres. — Guda-arazoetarako dirutzak gitxitu daitezan, dirutza oŕein goraberak Ginebra'n arakatzeko gertu egongo ei-da Lateŕi-Batueta'ko Gobernua "New Chronicle"k diñonez.

**ABISINIAR GUDARIEI GIZONEI YAGOKUENEZ BEGIRATU DAGIOELA ESKATZEN**

Londres.—Abisiniaŕ'ko gudatean espe artu ebezan abisiniaŕ gudariei, gizonei yagokuenez begiratu dagiuen, Italia'ko Gobernua oŕetara beaŕtu dagiala eskatu dautse Lateŕi-Batza,k Idazkariari idazki edo karta baten bidez, politiko-batzokietan esaten danez.

PAXISTEN EGAZKIÑAK

## Geure "Ibon", zaurituta

Paxista deungen egazkin baltzak euzko-luŕ gane zear uŕeratuten yakuzan bakoitzean, atsekabe baŕi bat ekaŕi oi dauskue.

Eguenez, sei bidar giño eldu yakuzanean, etenbako joan-etoŕi estuetan, gordeleku ateetan jausi eta zauriturik dogu "Ibon" idazle aspaldikoa eta geure lankide azkaŕa.

Bere bear izana dogunez, alik lasteŕen osatu dedila opa dautsagu.

DIRU GORA - BERAK

## Pakeari eusteko dirua jo du begiz Chamberlain'ek

### Guda - zaingorako izango dan dirutzak ardura andia sortu du ingelesen artean. Inglateŕa pake-biderik onena.

Londres.—"Comunes" Batzaŕean aztertzen asitako "presupuesto" bateri eman diote geienbat ardura. Atzo asi zuten ginztetako irabazi-ondokiñak zerga antzo Guda-Zaingorako izango dirala dion presupuestoaren astertze-lana. Presupuestoaren beste aldeai ez diote aŕetarik eman. Eŕenta esitzat librako iru peniketik bost txeliñera jasotzea, aufez uzte izandakoa da. Etxe aundiak norbere jaubetasun egin dituzten jabeai agertutako ezarpen-kentzeko asmoak, euren izen-ordea eurak irabazitako banangaŕiak baiño gareztiago salduaz eta banangaŕiok ordaindu ondoren beŕiro erosiaz (zergarik ez ordaintzeaŕen alegia), ez dute buruko min aundirik sortu.

Guda-Zaingorako izango dan zergak, gaiñera, ardura aundia sortu zuan atzoko Batzaŕean eta ez dituzte oraindik begiz jo aren mamiñari dagokioten alderdi guztiak. Asmoaren ingurukako guztiak zeatz-zeatz azterlu zituzten; txindilari ta saldu-erosleak saneuŕiak noraño beerakoa izango zuten aztertzeari eman zioten.

Ezarpen ortatik aurtengo urtez miloe bi libra esterlina jasotzeko asmoak ditu kanzileŕak. Asmo oŕi buruz atzo gabaz onelaxe mintzatu zan kanzileŕa iratizki ñez: gaur-egunez gintzak eta saleroskeiak ain asmoak, euren izen-ordea eurak irabazitako banangaŕiak baiño gareztiago salduaz eta banangaŕiok ordaindu ondoren beŕiro erosiaz (zergarik ez ordaintzeaŕen alegia), ez dute buruko min aundirik sortu.

Guda-Zaingorako izango dan zergak, gaiñera, ardura aundia sortu zuan atzoko besteak bestean egitekotan, olak beŕitzea ere aski zuten. Baiña, Guda Zaingorako ainbat dirutza bear degun egunotan eta aldi labuŕez berenez, ez let uzte geiegi jotea danik egoki dauden gintzai abeŕiaren aldez aldi bateko ta alegin bereziz ekitzeko eskatzea. Euren altxofa emanaz, abeŕiaren auŕerapiderako beaŕeko dan lateŕi-zaintzari lagunduko diote.

Zerga-jetzitze guztiak baiño pakea sendotzeak mila aldiz geiago balio duala azalduaz eta pakeari eusteko Inglateŕa dala pake-biderik egokien agertuaz, onelaxe amaitu zuan Chamberlain'ek bere itzaldia:

"Nere ondorengoak guda-izkilu arazoarekiko zoro-aldi onen ondoren, zergak gutxitzeko zoriona izango du, agian; nik ez dedan zoriona. Betor lenbailen egun ori."

Atzoko eguna euzko zaingoetan

# Urengo eguaztenez, janari banaketa berezia.-Frantze'ko kontsulak ez dau iñora aldegin.-Euzkel-irakasleak.-Sendagillien laitxalogaria.-Biartik aurerantzean, egunero izango dabe ogia eritarak.

## Lendakaritza

BATZAR BEREZIA

Atzo-arratsaldeko bostetan batzar berezia egitekotan zala Euzko-Gobernua jakin-erazo zigun eguerdiz Zaingoratu ginanean idazkari berezi Basaldua'tar Kepa jaunak.

ATZOKO EKIÑA

Idazkari bereziak esan zigunez, atzoko eguna ikef-eguneko ekiña izan zuan lendakari Jaun Agurgariak.

—Gauf arratsaldeko bostetan—gaineratu zigun Basaldua jaunak—Euzkadi'ko Eri-Ekintzako Batzordearen ikefa izango degu.

IRU INGALANDAR ITXAS-ONTZI ETORI

Atzo goizeko bederatzi ta erdietan iru ingalandar itxas-ontzi Bilbao'ratu ziranen beri eman zigun ondoren Basaldua jaunak. "Hamsterley", "Mac Gregor" eta "Stembroock" dira ingalandar itxas-ontziok.

Lagidi baruko itxas-uretarako ingalandar gudontzi batzuk lagun egin zieten, "Hood" ere tarteko zala.

Lagidi baruko uretan, "Almirante Cervera" paxistar gudontziak eta "Galerna" bou'ak jo zieten bidera. Atxilotu asmoz uferatu ziran paxistar itxaslapurfok, baiña, itxas-basterako gure kañoiak eta "Bizkaia" gure bou'aren suagadak iges-erazo egin zieten, aufez ofatio makiña bat suaga jaurtita guretarak.

URIBE JAUNA VALENCIA'RA

—Gauf goizez—gaineratu zigun Basaldua jaunak Erkaleko Nekazaritza Zaingo'ko ministru Uribe jaunak Valencia'rakoa artu du egazkiñez.

ALDASORO JAUNA LENDAKARITZA'N

Azkenez Basaldua jaunak, Orniketa ta Salerosketako arduradun Aldasoro jauna lendakari Jaun Agurgariagana eraman zala Zaingo'ra esan zigun.

## Zuzentza ta Gogolantzea

EUZKERA ZABALDU TA SAKONTZEKO

Il ontako 21'enko. eta gauf argitaratutako Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa" ilkiak, erabaki auxe dager:

"Auzi gafantzitsu benetan efiaren gocoa lantzeko euzkera zabaldu ta sakontzea, politika-arazo ta gizarte -auzietan dagokion goi-mailetara igo erazoaz. Euzkadi'ren izkuntz bakafari dagokion zofa ordainduaz.

Zuzentza ta Gogo-lantze Zaingoak, berez, euzkera irakasteari buruz lanari lotuta diarduten batza ta euzkeltzale bakafen ekiñak ain afetaz onartu ta jasoaz, ala ta guztiz ere, alagiñik bizien euzkera landu ta ofaztearri lotu beaf zaizkiola uzte du. Eta ortarako egokien, geure artean dirainbat euzkera-irakasle dira.

Euzkera erakusteko eta lan ortegiago edatu ta egokitzeko, Zuzentza ta Gogo-lantze Zaingoak bere lepo artu du euzkeraren agintariarekiko irakaskintza, ortarako auxe erabakiaz:

I. Zuzentza ta Gogo-lantze Zaingo'ko Izkuntza ta Elerti Sailaren menpe egongo dan Agintariarekiko Euzkera -Irakasle-Batza sortzen da. euzkera xuspertu ta irakaskintza egokitzeko.

II. Agintariarekiko Euzkera - Irakasle-Batzari dagokion lana, auxe izango da.

a) Izen ori lortu nai dutenak zenbat euzkera dakiten bereiztu ta egiztatu.

g) Euzkera erakusteko jokerarik egokienak arakatu ta onartu.

k) Batzaf eta agintariarekiko idazkoletako idazkariak beaf dan beste euzkera badakiten zaindu ta aztertu, badakitenetan, dagokioten lana burutzeko gai dirala egiztatzen duan agiria emanaz.

III. Agintariarekiko Euzkera-Irakasle-Batza, onexek asatuko dute:

a) Sariketa naiz nor-geiagoka bide. Bazkunetako bateko naiz agintariarekiko batzaren bateko irakasletza lortu dutenak.

g) Aitatutako lekuetako agintariarekiko euzkeratzaileak.

k) Len euzkera erakusten jardun izan oi duten irakasleak.

IV. Orobat, euren buruari irakasle izena emateko gai dirala derizkiotenak, Izkuntza ta Elerti Sailera bialduko dute eskabidea, zein oiñari dituzten jakin-erazoaz.

V. Euzkera-Irakasle-Batzak berak bere artean izentatuko duan Epaikaritzak aztertuko ditu eskabideok.

VI. Epaikaritzari egoki iriztekotan, eskabide-egileari, itz eta aozko azterketa batera dei egingo dio.

## Saleroseta ta Orniketa

EGUAZTENERAKO JANARI BANAKETA

Urengo astazkenez janari banaketea izango dala adirazi euskun emengo burukideak, eta aspaldiko orniketa ugariena, izan ere.

Gai auek bananduko dira:
Lusagafak, 1.000 gramo.
Afoza, 250 gramo.
Indabak, 250 gramo.
Gozokia, 250 gramo.
Makalua, 200 gramo.
Idafak, 100 gramo.

Bost lagunetik berako libretadunei, tomate lata bat, eta gorakoei bi emongo yakez.

Ta al'balitz, ardaua ere, banandu nai genduke.

GAIAK ESKURATZE LANETAN

Ogiaz ditugun eragozpenak garaituten alegin bizienak dagiguz, iñoskun Aldasoro jaunak, eta egunero egin al izatea lortu arte. ez dogu etsiko. Ta ofegaz batean, premiña beafezko ditugun gauzak geienbat.

Latefi kanpo, Bilbao'n alde leku askotan asi dira orain, emengo jokaera zintzoa eta efi zintzoa aintzat artuaz. Ofegaitik, azken egunetan izan diran lazka ta eztabaida ondoren estaduak gure alde jardungo dabelakoa esan giñei, esan euskun.

IRU ONTZI INGELES

ALtzo beste iru ontzi ingeles eldu ziran Bilbao'ra, eta janariz beterik etofi bere.

Aldasoro jaunari pozez itaundu geuntsan zertzuk gauza ekafezan ontziok.

Oraindiño ez dogu gauza guztien ofeskadea egin, Jardetsi eban. Baña ontzi bat beintzat, gariz beterik eldu da. Eta besteak, lusagafa, indabea, kafea, afautzak, esne batua, ilafak, arbi-azia eta abaf dakafe.

Orez ganera, emengo dendarientzat beste gauza geyago.

ZUZENDARIZ NAGUSIAZ

Gomez Beltran zuzendariak atsegiñez artu ginduzan atzo bere poza agertuaz, ontzi inoelesak elduak genduzala-ta.

Aspalditxuan ontzion zai egon gara. esan euskun, eta noizbait ere emen ditugu.

Garlaz gañera, beste gauza asko ekafi dabe. Ori-ta, ufengo eguaztenako banaketa, ila onen 28'gnko. janari orniketea berezia egingo dogu.

GAUF OGIRIK EZ

Ontziok belu samaf eldu diralako ta beraz zama kentzea egiteko astirik izan ez, biaf, esan eban, ez dogu ogirik izango efiarenizat. Gudari eta gexotegientzat, bai ordea.

Baña igandetik aurerantzean ogia egunoro izango dau eflak bere-adirazi euskun azkenez.

EMOKUNAK

Jatetxe bateko jaubeak 50 laufleko biali dita. eta emendik Gizarte Laguntzara igofiak izan dira.

Durango'tik aldegindako umetxu batek bere itsulapikoa auzi, eta euki dauan mordoa, 13,05 laufleko. Gudarien umezurtzaentzat dala-ta, emon dausku—adirazi euskun izpafkarioi Gomez jaunak. Jakingafia danez, auxe bere agert uteko eskatu euskun.

Orez ganera, Ondafoa'ko Udalak 2.000 laufleko ekafi dauskuz, efi ortako babestuei gaiak banantze ardurea beronek dauanez, izan dituen irabazletatik zati bat.

Egitada txalogafian argitalgafia benetan; diru ori ere Gizarte Laguntza'rako izentau dogu.

Ta geiagoko barik, agufi egin euskun Zuzendari nagusiak egundoko befi onak guri azaldu ondoren.

## Gintza-zaingoa

EMOKUNAK

Ila onen 21'gn. eta 22'gn. Zaingo onetan egunero bezela dirutza efeskadak emon dauskuez, eta egun biotako emokunak, 2.748,60 laufleko izan dira guztietara.

# Idaz-sariketa

Gudaz gero idazten asitako idazle ofientzat.

Idazle bafiok talde bitan bereziko ra. ERI IDAZLEAK GUDARI IDAZLEAK.

Lenengo taldekoentzat sari abek nten ditugu:
Lenengo saria, 200 laurleko.
Bigafen saria, 100.
Irugafen saria, 50.
Bigafen taldekoentzat sari onexek en doguz:
Lenengo saria, 250 laurleko
Bigafen saria, 200.
Irugafen saria, 150.
Laugafen saria, 100.
Boskafen saria, 50.

Gudea baño lenago idazten ben. IDAZLE ZAARENTZAT.

Idazle zaafak talde bitan bereziko dira: ERI IDAZLE ZAARAK GUDARI IDAZLE ZAARAK.

Lenengo taldekoentzat sari abek ipinten ditugu:
Lenengo saria, 200 laurleko.
Bigafen saria, 100.
Irugafen saria, 50.
Bigafen taldekoentzat sari onexek jartzen doguz:
Lenengo saria, 250 laurleko.
Bigafen saria, 200.
Irugafen saria, 150.
Laugafen saria, 100.
Boskafen saria, 50.

BALDINTZAK

Jartzen dan Idaz Sariketa au gudea amaitu daitenean ebatziko da. Erabagia emoteko Euzkeldun Irakurle Batza'k Epale Batzorde bat izentauko dau.

Idazleak edozein gai erabilteko azkatasuna izango dabe, naiz elerti utsezkoak, naiz efi izpafak. Gudariak, baña, egokiago izango da gudeatzazko (guda oñetakoak eta abar) gayak erabiltea.

Erabagia emoteko, idazle bakotxaren lanari buruz, xeetasun onek gogoan eukiko dira:

Zenbat idatzi dauz: asko ala gitxi.

Bakotxak idatzi daun gustia gogoan eukiko da, osoan ikusteko zelakoa izan dan bere lana.

Sariketari buruz gafantzirik geyen emongo yakona auxe da:

a) Laburki idaztea.

g) Yoskera garbia erabiltzea. Laburki idazteak ztau esan nai, oso labur idatzi beaf izango danik, erabiliko dan gaya ondo borobilduta erabiltea baizik. Eztaitela izan, adibidez, amaf lefotan, ondo biribilduta, argi ta egoki esan leikena, ogetamaf lefo erabiltea, esan nai dan berbera, puztuta batera ta bestera, idazkia luzetuaz esateko. Beraz, ba. laburtasunak eztau esan nai, nai ta nai-ez, idazkiak labufak izan beaf dabela, gayak laburki erabiltea baño. Izan liteke gaya gafantzi undikoa eta luze azaldu beafa izatea. Alan izan ezkero, luze izatea egoki izango da. baña al dala luzeegi ez egin, luzeegiak irakurlea bildurtu egiten du-ta.

esan nai itzetan euzkera garbi-garbia, kutsu gabea, erabili izan bearko danik.

Yoskera garbia erabiltzeaz, eztogu Esan nai doguna da euzkera bere arauz idatzi beaf dala ez erderaren arauz.

Yoskeraz (itzak lotukeran eta esakunak lotukeran) garbitasuna zeatz erabili beaf da. Ondo yosi euzkerea naiz ta erderazo itzen batzuk erabili beaf. Ez uste izan erderazko itzik ez erabiltzea garbitasunik asko dala. Ez ba'leiteke erderazko itzik ez erabiltea ta erderazko yoskeraz yosita egotea.

Idazleak, na'z bizkaieraz naiz gipuzkeraz gogozk idazkerea erabili ai izango dabe, n izpiyakeraduna (fonética'duna) na izpiyakera bakoa.

Idazleak euren lenengo lana bidaldayenean (dezatenean) EGUNA'ren Artezkariari edo Euzkeldun Irakurle Batzari yakin ereziko dautse Sariketari buruz (con relación al concurso) zein taldetan sartzea yagoken.

BATZORDE EPAIKARIAK

Erabagia emoteko (gudea amaituta emongo da) talde bakotxerako Batzorde Epaikari bat izentauko da. Batzorde bakotxa euzkeltzale bikain bik osotuko daba. Bata Bizkai'ko euzkerearentzat eta bestea Gipuzkoa'rentzat.

Talde bakotxean, Bizkai'ko Epaikar'ak Bizkayeraz argitaldutako idazlanen ardurea izango dau ta Gipuzkoa'koak gipuzkeraz argitaldutakoena. Epaikari bakotxak berak aztertutako idazlanaren epaya beingoan emongo dau, azkenerako danak epaitzeko utzi barik. Astertutako idazlana idazkazal edo sobre baten (bafuan epaya dala) sartuko dau ta Euzkeldun Irakurle Batza'ri bidalduko dautso.

Epaya puntoz emango da. onetaraxe: Puntorik geyen ogei izango dira ta idazki bakotxari epaikariak deritxon beste punto edo ogairen emongo dautsoz. Sariketea amaitu daitenean idazkazabal edo sobriak idegiko dira ta ikusiko da batax beste zenbat ogeiren edo punto izan dauzan bakotxak. Eta ogeireuez ogeiren edo puntoz punto (gogoan arturik bakotxak egin daun lana, ba puntuetan bardiñean egonafen ezin bardindu izango dira bost idazlan egin dituana ta berogetamaf egin dituana) goyen dagozanari emongo yakez sariak.

Sari banaketea egiteko Euzkeldun Irakurle Batza'k yai aundi ta edef bat antolatuko du.

EUZKELDUN IRAKURLE BATZA.

# NEKAZARIA TA AZERIA

Nekazari bigufi bateri auzoko soroak galburu edef mam tsuz jantzirik ikusjak bekaizkeriz biotza kixkaltzen zion, eta onen lanak alperik gaitzeko asmo zitalak bururatu zituen. Lizara joan da azeri bat atzitu zuen, eta beroni ileti sutsu bat isatzian ezarita azkatuaz, auzoko soroetara uxatu zuen. Onek baña, bidean bestaldera jota, Jainkoak ala nairik, bera bialdu zuen sallak efe ta kixkali zituen.

Bigufiak auzokoen aufka asmatzen dituzten gaitzetan eurok lenen erortzen dira.

**ERAKUSPENA**

Bekaizkeria, afedenduna, biotzean gofotoa sortzen duena. Eta gure Esaera-Zafak dionez, "Abere gaiztoa da gofotoa". Kendu ba ta bota zuekandik ain gaiztoa dan abere au, eta zapaldu ta ezereztu, beren ordez maitasuna zuen biotzetan bakalduntzat jafjaz.

# Gosea ereiten

Argi bat Jaungoikoari. Bestea impernukotzaiari.

Goizean mezetara. Afatsaldean lizunkeri bizienlan.

Goizean ukabilkada sendoaz Jauna barka gatzalzu eskatuaz gero zofak barkatu ez ezik langileari bear zaiona eman ez. Auxe izandu da efegezale arteau orainarteko elburu bakafa. Eta elburu onari buru-belafi josita gofotoa ta negafa non -nai zabalduaz ibili zaizkigute.

Ez dute jakin nai izandu langilien uritasun da txirotasunatzaz ez ezertxo ere. Ezeruxo ere ez bere ezbear eta miseriatzaz.

Txirotasunaren landarea erein bear lendabizi efukietxei laguntzeko gero, langileartzat asko gogoratu gabe bizi bear norbere buruarentzako asko bear duanian. Bere gogo zikiñak asetzeko, bere grin txafak aufera eramateko, jendearen aufean jantzi apañenak eta pitxi aberatsenak azaldu al izateko.

Ziur egon gañera, efukletxe, gaxotegi ta abafei lagundu diotenian bere buruak afo-afo jendean aufean azaltzeko ez bada es dutela egin.

Itz batean gosea erein dute.

卐 卐 卐

Bizitzeko lana egin bear. Jan ere bai. Ona emen Gorbea mendia baño aundigo ko egi bi. Lenengoa bakafik daramate buruan patxista ankefak.

Lana egin arazi naiz eta berak ezer egin ez. Janik eman ez. Langile etxeetan gosea zabaldu berak ugaritasunean dabiltzan bitartian.

Gosea erein dute baster guztetan. Negafa ikusi da langile etxeetan. Aita gizarajoak bere gemetxo argalduak ikusirik, gaitza ta miseriya bere etxian ikusirik zerbait geiago irabastea ausartu da. Ausartu ortara Aita Santuari ere jaramonik egin ez diotenian.

Ez dute entzun langilearen ots efuki gafiak. Zertarako entzun une gaxoen maiñots samingafiak? Jesukristo'k gosetiai ogia emateko esan zuala ta zer aiola oiei? Lagun urkoa maitatzeko esan zuala ta zer?

Eleizara egunero dijoaz. Ta gañera efiko eleiz nagusiei kanpai befia efegalatu diote. Axaleko kistaftasuna, Gezurezko kistaftasuna.

Eleizak ere ezer irabazi ez.

Izan ere kanpai befi ofek baño zarata eztitsuagoa maitetasunaren eta egizko kristautasunaren eresia daraman kanpai otsa. Egizko kristautasunera deitzen duan kanpaia, maitetasunaren eresia abesten duana, alkartasuna ta lagun urkoarentzat bear dan begirapena esan nai duana, bere oiartzunetan txiro ta aberats berdintzen duan eresi maitagafia.

Auxe bear zuan elizak eta orixe ez dute egin bere buruak deuntzat dauzkaten gezurezko katoliko oek.

卐 卐 卐

Gose erein zuten. Orain jasotzen ditugu bere igaliak. Gosea erein da gofotoa jaso. Ona emen gaurko gudaren zergatia. Iñolaz ere ezin ikusi zezatekean langilearen buru jabetasuna. Ta bere eskariak bear ziran tokira eldu ta gosea nolabait asetzeko asmoak egia biurtzeko zorian agertzen giñanian guda sortu dute. Euzkadi gudaratu ere bai.

Abertzaletasuna besoak tolesta'uta ezin egon zitekean.

Abefizaletasunak abefiaren azkatasuna naj du, Abefia ez ezik bere semiak ere azke ikusi nai dizkitsu.

Anaitasun da alkartasun geiago bere semeen artean. Langileak ugaritsuenak gera. Ugaritsuena ba-gera maitekiro begiratu bear euzko abertzaletasunak. Onexegatik abefizaletasuna gudaratu da.

Egizko kristautasuna ta abertzaletasunaren azia gure abefian ereintzeagatik.

Langileak bear bezela bizi ditezen Euzkadi azke batian.

*"Euzkalduna"ko gudari bat*

## Euzkeltzale batzueri deya

Gran Via, 41'gko. 2'gn. bizitzan daukagun idazkolara, arin bat ariñen etofi daitezela ufengo aoneri eskatzen dautsegu:

Manterola'taf Gabirel.
Afue'taf Joseba Aba.
Ertze'taf Efamun.

EUZKELDUN IRAKURLE BATZA.

**"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALE BIDEZ, EUZKADI'KO NEKAZARI ETA ARANTZALEAK ABERTZALETUKO DITUGU. ABERTZALEA ZERALA DIOZUN OREK EZ OTE DIGUZU LAGUNDUKO EKITEN, DIOGUN LAN ABERKOI ONETAN?**

Españar gudako izpafak-eta

# Ciudad Universitaria'n dagozanak urten nai, baña ezin.-Franco'ren aurkako beste matxiñada bat? - Teruel'en eraso zakafak eta aufera. - Jarinto'ko geltokia suagatu dabe erkaldafak. - Pozoblanco'n ainbat lagun efepublikafen artera. - Beste izpafak.

ATZO GOIZALDEZ GUDA-OIN GEIENETAN LENGO SENEAN

Madrid. — Arañegun bare egon ziran Madrid'go guda-oin geienetan.

Ciudad Universitaria'n ibili ziran paxistok urtepide-bila.

Teruel'en lengo senean; egoaldean bufuka batzuk eta joaldia egiteko beafeko diran sailak eurontzen jardun dabe erkaldafok

POZOBLANCO'N ERKALDAÑENGAÑA EUN ETA BEROGETAMAÑ GUDARIKO TALDE OSOA

Andujar.—Arañegun ¡luntzean erkaldafen suagalariak ekiñaldi biziak egin ebezan. Paxisten guda tokiak apurtu egin ebezan.

Erkaldafen bultzakadak asko nekatu dabez paxistok.

Pozoblanco inguruan paxistei iges-egin eta erkaldafongana gudatsall edo konpani osoa, kabo ta arjento ta izkilluekin etofi da; konpani ori eun eta befogetamaf gudarik osatzen dabe.

Guztiz adorekatuta ei-dagoz paxistok eta erkaldafak len egin daben, baiño joaldi gogofagoa egingo ete daben bilduf ei-dira. Fuenteovejuna, Ovejo ta Peñarroya'n gudari talde bafiak eruan ei-dabez, sendogafi izan daitezan.

TERUEL'EN ERASO ZAKAÑAK ETA AUÑERA

Valencia.—Teruel'dik datozan izpafak aitzen emoten dabenez, erkaldafak jo ta jo diñardue ta guda-toki bafiak euron duz aufera duaz.

Paxistok zail dagoz ta erkaldafei eusteko lefak egiten dabez; alpefik baiña gitxiago danak atzera egin beaf dau-ta.

QUINTO'KO GELTOKIA SUAGATU DABE ERKALDAÑAK ETA PAXISTAK AZAILLA URIA

Barcelona.—Aragon'go guda-oiñetan bare-samar egon dira.

Robres, Tardienta ta Alcubierre'n egin dabez pusilekin ekiñaldi batzuk.

Quinto'ko geltokia suagatu dabe.

Paxistok Azailla uria suagatu dabe; uri ofetara irurogetamaf suaga jaurti ebezan eta etxetan edo zeinbat apurtu.

URIK, BE, BAGE CIUDAD UNIVERSITARIA'N ESIBAÑUTUTA DAGOZANAK

Madrid. — Ciudad Universitaria'n guda-esia apurtzeko lefak egin dabez paxistok, baiña asmuoi ez dabe lortu.

Manzanares'era uferatzeko iru ekiñaldi egin dabez, urik, be, barik dagoz ta, baiña erkaldafen kañoi ta izkilazkafak ez eutsen laketu.

ARGENTINA'N ASAÑE

Buenos Aires.—Erkaldaf-Laguntza Batzordeak Prantzi'aren eta Ingelatefa'ren arazo zuzendariei bere asafta agertu dautse erkaldafen portu batzuk itxas-esitu edo blokeau egiten dabezalako ta Bilbao'rako itxas-ontzi eragozpenak jarten dautsezalako.

FRANCO'REN AURKA BESTE AZPI-MATXIÑADA BAT

Rio Janeiro.—Paxisten mende dagozan uriburu batzuetako izpafak darakuskuenez.

Franco'ren aurka azpi-matxiñadea gertau eben norbaitzuk eta Falange'koen eta Efekete'n arakatzaileak azpi-matxiñadearen bafi izan egin dabe.

BAITA HEDILLA'REN AURKA, BE

Endaya.—Falange'koen buruzagi nagusi dan Manuel Hedilla ilteko, azpi-matxiñada berezia gertauta egon da Salamanca'tik eldu diran izpafak aitzen emoten dabenez.

Falange Alderdian begiko ta bafu-bafuko ziran Galceran eta Sancho Avila izan dira azpi-matxiñada ofetako eraltzaile. Ofek darakuskunez Falange'koak eurak, be, alkar-alkartuta ez dagoz ta ofez gaiñera efeketiekin ezin dira konpondu. Ofa zelan dabiltzan euron artean. siñistu."

## AU, ORI TA BESTE

# Inditarak eta ingelesak burúketan jarraitzen dabe India'n

### Italia'k geroago ta Mussolini'ren aurkako geiago.-Lareun milla lagun gitxienez juango dira Ameriketatik Paris'era Erakusketa ikusten. - Egipto arikatza erosten, gerarik ba'litz estu ta lari ez ibilteko.-Lateri Batza'n usterik ez españarak. Franco'ren irudi bateri arika Zurich'en. - Beste izparak.

## Guda oñetako agariki

### GABEKO IZPARRAK

### EUZKADI

**EUZKADI'KO GUDA-ZAINGOAK ATZO GABEKO AMARETAN EMANDAKO AGIRIA:**

**Gipuzkoa'ko guda-oiñean**

**Lekeitio-inguruan gure gudariak eraso-azterketaka jardun dute arerioaren gudarosteta, egoki zuzatuaz gaiñera.**

**Elbar-inguruan no zbiniteko mortero-jota nagia baiño ez da izan.**

**Elgeta'n eta Elorio'n ekin gogofeara diardute guduketan, gure gudariak arerioaren erasoari kemen goragariz eutsi ta uxatuaz. Arerioaren egazkiñak ilunabar arteraiño guda-oin ontako esiak suagatzen jardun dute.**

**Bizkaia-Araba'ko guda-oiñean**

**Arerioaren egazkiñen azter-lanak baiño ez dira izan.**

**Burgos'ko guda-oiñean**

**Baranbio-inguruan artileri-guduketa gordiña.**

## Lizaso'taŕ Alexander

Tristerik dago txistu-soltitza.

Gipuzkoa: Lizaso: "Itxarkundia": maitekiro besarkadan dagoz aberi katiakaz lotuta: Biotz-kutun dabe alkar iru abots oneik.

"Itxarkundia" saldi ezagun ta aurerengua: Euzko-gudarostе'ko mutillik bizkor ta kementsuenak. Euzkadi'ko tontor, aran ta ibaiak zure ixen ospatsua entzun-ta batera, poz - baketsu atsedenduten dira. Baseixe zuri antxindarak: uri andiyetako ola gudatsuak; itxa-mugalian poxpolin antzera dabiltzazan ontziño lirañak, gustiyak dira "Itxarkundia,,'ren anai - adizkide Sorgin-antza dirudie eurok. Beronen durundi da beti, gure sentzuna.

Euzko-gudarostean dago gure abendeiyareu zori ta gentza: Gudari gastiarin eskubetan dago biarko etorkizuna; datoren bixitz arteza; itxaropen ezia; aldi bari argiya. Baño, zenbat eta zenbat odol gaste nekalduta!! zenbat eta zenbat sendi ondatuta!! eta zenbat eta zenbat biotz-liura, ames-gozo ta eskintza-samuŕ, ke-antzera bapeztuta! Ordaintza gaŕatza beran.

Negaŕa, zotiña, samiña. Oŕa oŕ Uztzi'ren ixenez Euzkadi'reu lau aixjetatik datorkigun albista baltz mingotza. Oneik dira España-gazko ondo egin sariyak Arantza zoŕotzezko eriñotz uztaya. Jopu bixitza-ondorena.

Lizaso'taŕ Alexander. "Itxarkundia" saildiko gudalburu trebia; adizkide-anai on ona. Bermeo onen maitale lenena, eŕi aldezle kementsu ta azkaŕa, Euzko Aberi ziñopa... I ere juan az...! Baña mora iges egin dok? Goi-bixitzara. Goi-bixitzara? Bai, mutil; oŕ yagok ire lakuentzako tokirik berezi yena: Atseden kabi lasaia.

Jauregi baŕi oŕetatik, ba, ene adizkide maitea. erestuko dozu txistu-eresiz ludi itsu onetan zeuk ain kutun ixan dozuzan Eŕenderi, Igeldo, San Anton, Getari, Aizkibel Aya eta gure ta "zure" itxas-eritxoari "Itxarkundia" Aberi-azkatasun ifintzi ereserkiya: pio pio zorionekoa.

Ortik Goitik, ba, oroitu gugaz: Gure alde. Ez aiztu aŕen: Lagundu.

Ire betiko ipaña auxe ixanda: Aufera, ala il. Eta ori egin zendun. Aufera! eta gero...

Seme onen jaube dan aberiya ezlikoña da: amaibakoa.

Betetuko al-la gaste onen gogo-as moa?

Aguŕ! Lizaso anai-aberkidia: Aufera guaz zure antzera euzko-galuŕ ta zelayetan gaste-odol zimaurtiz Euzkadi gure aberi bakaŕaren azkatasun izpi disdiratsua ereñik: Benetako Aitoŕ semiaren ames gozua.

Aberi zuzena, anaikoña, langilia, erelako kate-estuntza ta joputza barik gura dogu. Ela gaste guramen ta nai au loŕtu afte gertu gagoz euzko-odolagaz lagi-izki baŕi oneik idazteko

¡Aguŕ, Lizaso maitea! ¡Aguŕ! Gero arte.

URKIDI.

(Bermeo'ko Gudaroste'tik.)

## AGUREA ETA BIOTZA

Agurea antxiñakoetan, bascan ebakitako abaŕak bizkar gaiñean zeramazkiala, bide luzean zijoan. Ofenbesteko bide zailaz gogaiturik baña, zama beregandik jaurti ta Eriotzari beingoan beregaindu ze'in deitu zion. Oña ba Eriotza bat-batean agertu zitzaion, eta zer zala-ta berari deitzen ote zion galdetu zion. Agureak ostera dio: "Zama nere ordez eraman dizadazun".

Edestitxo onek erakusten digu gizon oro, naiz zorigaitzez zapaldurik, bizi-zale dala.

**ERAKUSPENA**

Gu ludi onetan bestelako ludi eder betiko batera ibiltari goaz. Neke asko eta oñaze ugariak bidean izango ditugu noski; baña Kistaŕ onak, eramankisun oso-osoaz lan guzi olek Jaunari eskeiñiaz auferantz, bere betiko saria Jainkoagandik eriotz-azkenean artu artean, iraunkor da kemen'su egiten du beti. Guda ondoren ba, gurenda: bildur da ikara ondoren, alaitasuna ta gentza; min ondoren, poza; ta neke ondoren, atsedena.

**"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALEA, EUZKADI'KO TXOKO GUZIETAN SARTU BEAR DEGU. ¿ZURE LAGUNTZA UKATUKO OTE DIGUZU GURE ASMO ABERKOI ONETAN?**

### ALKATETZEA KENDU

Berlin.—Goering'en aginduz alkatetzea kendu dautse Dusseldorf'kueri. Azkenengo egunetan agertu diran lapuŕeta batzuk izan da erabagi ori.

Ostu dirutza miloe marko inguruta elduko dala uste da.

### LIBURUTEGI BATERI AŔIKA

Londres.—Españaŕ paxistak alde guztietan euren adizkideak baño ikusten ez dituen aŕen. Zurich'en liburutegi bateri aŕika ekin dautse Franco'ren irudia eukan liburu bat salgai egoalako.

### MUSSOLINI'REN AURKA

Paris.—España'ra gudariak bialdu ditualako egunetik egunera asaŕe eta naste geiago sortuten dira italiaŕ eŕi askotan. Turin'en mundaka lagun atxilotu (detenidu) ditue, bereziki ¹nian, asaŕe bizia agertu eutsen.

San Pedro de Vincoli'n paxisten teniente batek España'rako bialtzeko ziran izen talde bat egin eban mutiliki esan barik eta oneik, jakin ebenian, asaŕe bizia agertu eutsen.

Guztiok erbestera bialduak izan dira

### ITXASONTZI BAŔIAK

Leningrado. — Artiko'ra-ta ibiliko diran ontziekako bi amaitu dira. Ontziok iru mila ta bosteun toneladakuak dira eta ibiliera oŕeik nasai egiteko lez egin dira.

### FRANTZIA IKUSTERA

Paris.—Lorentz, Sena'ko Batzar Nagusiko lendakariak esan dabenetik, lauren mila lagunek kabinak agindute daukez Lateŕi Batuetan, andik Frantzia'ko Erakusketa Nagusia ikusten etoŕi al izateko.

### GEŔATEKO ZOŔAK

Londres.—Neville Chamberlain'ek ageriu dau geŕateko zofetzazko eritxia eurak azterlu eta ikasi ondoren emongo dabela.

### GEŔARIK BA'LITZ...

El Cairo.—Egipto'ko Gobernuak irureun mila tonelada ikaŕ erosi erabagi dau, geŕarik ba'litz be ikaŕa oŕ biaŕizanian ez aurkituteko.

### LATEŔI BATZA'N USTERIK EZ

Londres.—España'ko batzokuetan uste gitxi dago Lateŕi-Batza'n. Emen ¹le dabenetik europaŕ gizon zindoen eritxiak lan geiago egingo da'i Lateŕi-Batza'k baño, euren alde.

## Paxisten basatikeriak
## EGUENEAN ZAURITU ETA ILLEN IZENAK

Egueneko suagaketetan zauritu eta ilak izan ziranen izenak:

Basurto'ko gaisotegian osakuntzak egiñak:

Arana'taŕ Imanol, 65 urteduna, Bilbao'kua; Jauregi'taŕ Iñaki, 60 urteduna, Bilbao'kua; Barbara'taŕ Alberta, Zoŕotza'kua; Madariaga'taŕ Polendin, barakaldotaŕa, 45 urteduna; Gonzalez'daŕ Kaisara, 28 urteduna; Martinez'daŕ Jagoba, 21 urteduna eta Atxa'taŕ Augustin, 41 urteduna, irurok Zoŕotza'kuak; Biota'taŕ Markelin, 29 urteduna, Buruzeña'kua; Arpizaga'taŕ Mataj' 46 urteduna; Arana'taŕ Jon, 12 urteduna; Mañarikua'taŕ Jenar, 25 urteduna, Apatamonasterio'kua; Arijita'taŕ Paul, 22 urteduna, Apatamonasterio'kua; Ruiz'daŕ Piedata, 39 urteduna, erandioaŕa; Aberasturi'taŕ Jule, 51 urteduna, bilbotaŕa; Zoŕotza'ko Urutxurtu'taŕ Jule, 75 urteduna; Alvarez'daŕ Abeliñe, 37 urteduna, eta Alvarez'daŕ Elene, 26 urteduna; Aberasturi'taŕ Nekane, 53 urteduna, bilbotaŕa; Cubillas'daŕ Publia, Garaizar'daŕ Elist, 42 urteduna, bilbotaŕa; Orbegozo'taŕ Demetere, 52 urteduna; Azpeitia'taŕ Jagoba, 14 urteduna; Campos'daŕ Domeka, 40 urteduna; Etxebeŕia'taŕ Augustin, 23 urteduna, guztiok Erandio'kuak; Gutierrez'daŕ Miren K., sei urteduna; Aldama'taŕ Jenobebe, 44 urteduna, Ibaŕa'taŕ Miren Bitore, 14 urteduna; Gutierrez'daŕ Mikel, 80 urteduna, eta Crespo'taŕ Balendin, 20 urteduna, guztiok zoŕotzatarak; Martinez'daŕ Beniñe, 14 urteduna; Toŕontegi'taŕ Jon Isidor, 48 urteduna, bilbotaŕa; Itxebeŕia'taŕ Matai, 38 urteduna, bilbotaŕa; Bolinaga'taŕ Matai, Eiketa'kua; Cousillas'daŕ Pinporen, axpetaŕa, 45 urteduna.

Gaisotegi onetara il da eldu ziran:

Saspi urtedun ume bat; Carrascal'daŕ Kelestin, 30 urteduna, soltaoaŕa; beŕogetamaŕ urte inguruko emakume bat; Sanz'daŕ Paustin, bilbotaŕa; beŕogetamaŕ urte inguruko gizon bat, zoŕotzatara; Alonso eta Gonzalez'daŕ Koldobika, 30 urteduna, Zoŕotza'kua.

Centro'ko Osakintza - Laguntza etxean artu ziran zaurituak onetxek dira:

Baŕasa'taŕ Paustiñe, Aldekoa'taŕ Josu, Mentxaka'taŕ Imanole, Alvarez'daŕ Sorne, Vivar'daŕ Adolpa, Urkiaga'taŕ Josebe, Garcia'taŕ Tekle, Artetxe'taŕ Miren, X. X., Garaizar'daŕ Elene, Henrio'taŕ Kerman, Pascual'daŕ Miren, Cantalapiedra'taŕ Lonore, Aŕien'daŕ Miren Pilare, Lobo'taŕ Miren, Gutierrez'daŕ Elixabete, Madariaga'taŕ Efose eta Cauzo'taŕ Nekane.

Ildako bat eldu zan.

## Gudasail osoa paxisten igesi

Madrid.—Egun osoan, ateŕalditxu batez asezik, paxisten artileriak Madrid uriŕa suaga jaurtiten jardun dau. Amaikagaŕen eguna da paxistok lan ontan diarduena, ta atzokoan, 250 suaga jaurti ditue. Esandako une oŕi, eŕizalien kañoiak erantzun dautsena da.

Gogoŕ jo eben eŕizalien suagakariak, eta orduantxe gudasalak auferaka ekin eutsen, eta Usera auzuneko paxistak euren lekuetatik aizatu eta atera zituen. Azilatik egon dira paxistak leku oŕetantxe.

Etenbako kañoi jardunak izu lanoŕian jarri ditu madridetaŕak, eta izpaŕingiak zarika ta akuluka ari dira, gogoŕkeriari gogoŕkeriz erantzun bear yakola esanaz.

Paxisten menpe dagozan uriei ots egiten dautse, ezkeŕtaŕak euren auferakadan iñoganako eŕukirik ez dabela izango, adiraziaz.

Atzoko suagaketan, ogetamar bat lagun il ziran, eta geyenak Gran Via aldean jausi ziran.

Guda-oin batzuetan ondore onak izan dituela diñoe eŕizaleak; jiloca ibai ganezar dagon zubi bat apuŕtu eben, eta Teruel laguntzera joian trenkada gudari talde amildu egin ebela.

Paxisten artean kokil eta gero ta makalago dagola jendea, agertuteko, gudasail bateko 175 soldauak euren oficialeak il, eta Gobernukoen aldera iges egin dabela, zabaldu dabe.

**"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALEAN ARPIDETU ALTZERA? ZERI BEGIRA ZAUDE ARPIDETU GABE? LENBAIT' LEN ARPIDETU ZAITE ETA BESTE BEIN ERAKUTSI ZAZU ZURE ABERTZALETASUN ZINTZOA.**

### DALADIER INGLATEŔA'N

Londres.—Chamberlain'ek -i egin -da Frantzia'ko Guda-Zaingo'ko arduraduna bazkari baten izan da. Ingel- eta frantzetaŕ gudalburu eta -oliti'ko -gari izan dira bertan.

Gero Lanchester'era juan zan. An alkateak aguŕ egin eutsan andikiro ta -ratatsu.

### INGELESAK ETA INDITAŔAK

Londres.—"New Daily" izpaŕingiak diñonetik ingelesen eta inditaŕen artean buŕukaldi gogoŕak egin dira. Ingeles talde batek arpe- emon eutsen iru-en edo bosteun laguneko talde batzuk eta egin eben buŕukean ingeles ofizial bi, indiaŕ ofizial bi ta emeretzi gudari il ziran. Guztiok ingelesakin ebiltzanak.

### INGLATEŔA'N BILBAO'KO AUTUA DALA-TA BATZUK GOBERNUA'REN ASMOEN AURKA

Londres.—Bilbao'ko autua dala-ta eskertaŕ izpaŕingiak bi-bizi diñardue Gobernua'ren aurka Inglateŕa'n eta ingelateŕaŕ itxasontziei zer jazoko- ipiñi dautsezan eragozpenak, atzera kendu dagiezala eskatzen dautse Gobernuai.

"Baldwin'en guda-esiak" izenpuru dabe idazlan baten, auxe idazten dau "Daily Herald,'ek: Gobernua'k bere aginduen alde, Bilbao guda-ezituta egoala aitzen emon eban eta biaramonez "Seven Seas Spray" Bilbao'rako zan.

Bilbao inguru-a- -- itxas-esti-ik, Franco'ren buruen eta Inglateŕa'ko Gobernua'ren irudimenean izan esik itxasontzien Bilbao'ratzea eragozteko-edu ez ba-ziran, Itxas-Agintaritzak beste gauza batzuk erabagiko ebazala azauldu eban sir Samuel Hoare'k eta "itxas-esitzerik ez dagon -ezkero Baldwin'ek egin nai izan daben blokeo bereziol, kendu beaŕa da ta oraiñarteko jokabideoi aldetu ez ba-daike, Inglateŕa'ko Gobernua España'ko zertzeladetan tarteko, be, tarteko dala esan beaŕa izango dogu".

### PAXISTAK ... I BAKAŔA NAI

Salamanca.—Oraindik orain Franco gudalburuak bere menpeko Inaldeko politika-alderdiak ezereztu ondoren, alderdi bakaŕa eratuten diardue paxistak, Franco buru dala.

Erabaki ori bete nairik, eta asmo auxe ugertuaz ufutidazkiak igoŕi ditue Goikoetxea'taŕ Andoni eta Gil Robles'taŕ Joseba Mirena'k.

Franco ditadorearen agindu- -ogoŕ eta naiez dagozala age-- -roe, estadu sendo- iragiaz.

## Bureskunde oikunsaioak egiten

Bureskunde gertakizunak egiten egunoro ta gogotsu diñardue Ingelateŕa'n. Edege ta ederegeren sendikoak, eurok jai oŕeitan egin beaŕ izango dabeza-n zeremoni edo oikun saioak egiten jardun eben atzo.

Guda - Zaingo'ko Arduradunak aitzen emon ebanez, Bureskunde jaiotan agertze-ibiliak egin beaŕ dabezan janzki urdiñon modukoak, jaiok egin ostean Ingelateŕa'ko gudari guztiei egingo dautse.

Gudarientzat lenago erabili eban antzeko janzki goŕia egin egiela eskatu eutsela, baiña ingelateŕaŕei begiragaŕiegi dan janzkiz jantzita juaterik ez yakoela atsegin eta oŕixegaitik janzki urdiña egin ebela esan eban azkenez Arduradun oŕek.

# MUNDU ZEAR

## Bilbao'n ontziak sartu dirala-ta Londres'era biladu dan ufutidazkia. - Alemania'n izpaŕingi batzuei atiak itxi. Turkia eta Italia'ren artean eragozpenak.-Laboristak Bizkai'rako janariak batu dabez.-Argelia iñoizkorik aberatsen.

### ALEMANIA'N IZPAŔINGI BATZUEI ATEAK ITXI

Berlin.—Reich'ko Zabalkunde Arduradunaren aginduz, Belgica, Holanda, Inglateŕa ta Prantzia'ko izpaŕingi asko Alemania'ratzea eragotzi egin da; eragozte oŕi dala-ta, alemandaŕak erbeste goraberen egizko baŕirik ezin izan daike.

### TURKIA'REN ETA ITALIA'REN ARTEAN ERAGOZPENAK

Roma.—Aspalditxu Ciano'k eta Roma'n Turkia'ren ordezkari danak izan eben baŕiketaldian, ezer ez zala lortu aitzen en- dabe Roma'ko izpaŕingi batzuk.

Italia'ren Turkia'ren alkartzea eragozten daben auziak erabagiteka daŕaie.

### BIZKAI'RAKO JANARIAK BATU DABEZ

Londres.—Laborista ta liberal alderdikoak itxasontzia baten Bizkai'ra bialtzeko janari asko batu dabe ta Bilbao'rako janariz beteta, itxasoratu da itxasontzi.

Itxasontzi oŕi datoŕen astean Bilbao'ratuko da ta Inglatera'ko diputaduren batzuk berton etoŕtea badaike.

### ARGELIA, IRAKO AMASEI URTIOTAN IZAN DANIK ONDUEN EKONOMI ARLOAN

Paris.—Irako amasei urtiotan izan danik onduen dago ora'n Argelia ekonomi-sailean; erosi baiño saldu geiago egin dabe; 155.000.000 prankorena saldu dabe.

Uri oŕetako ekonomi-akatsak atontzeko asmoa, Prantzia'ko Gobernua'k artu ebezan erabagiakaŕen, egin dabe oŕen aldakuntza aundia ekonomi sailetan; erabagi oŕein ondorenak, beingoan agertu dira.

### HITLER'EN ETA LANDSBURY'REN JARDUN ALDIARI BURUZ

Londres.—Hitler'en eta Landsbury'ren baŕiketaldiei buruz "Morning Post"ek Landsbury bere asmoak egi biurtzerik ez dabela lortu diño, Prantzia'n ez Lateŕi-Batueta'ri edaŕ-egiterik ez dabela lortuta.

### ALEMANDAŔ IZPIAZGOLARIA AUZIPETUTA

Londres.—Alemani'tik Ingelateŕa'ratzeko unean atxilotu eben Otto Kahr'en aurkako auzia il onen 27'gnz. izango da Epaikaritza Berezi baten. Ingelateŕa'ren kaltez izpiazgo lanetan ebilala ta oŕixegaitik auzipetu dabe.

Aldian eukazan agiriak agertzen dabenez, efudun da ta efudun dana agiri oŕe txekin agertzen da.

### LONDRES'KO ESPAÑA'REN ORDEZKARITZARA BIALDU DABEN UŔUTIDAZKIA

Euzkadi'ko Gobernu'ko Erbeste-araztoŕe, estadu sendoan iragiaz.

Sailak ufutidazki auxe bialdu dautso Londres'ko España'ren Ordezkaritza'ri:

"Gaur goizeko 9'30'tan Bilbao'ratu dira Donibane Loitzun'dik "Hamsterley", "Mac Gregor" ta "Strabroock" ingelateŕaŕ saleroskreta itxasontziak; danen dan itxas-sailean ingelateŕaŕ gudontziak zaindu dabez.

Itxasegaleko gure kañoiak "Cervera" ta "Galerna" itxasertzetik amabost milara uxatu dabez.

"Bizkaya" gure gudontziñoak lagundu eutsen gure itxas-sailean eta "Galerna"ri ta "Cervera"ri dunbada batzuk, be, jaurti dautsez; eurok, be, bai, baiña ezertariko oker bage eldu dira.

Ingelateŕaŕ itxasontziok eurok ikusi al izan dabe Bilbao itxasoz esituta ta miñatuta dagoala diñoenak, guzura diñoena.

# EGUNA JEL

Lgo. urtia | 97'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 937'gn. jorrilla 24'gna. larunbata | 15 eunen


Lañ - aldijetan agertu biaŕ da sendotasuna. Jolas-aldian, edoñor da baikoŕ ta adoretsu.

# ARGAZKI - INGOSKIA



*Abisinia'n, gudari oneik lez, Italia'ren bustaŕija jasan ezin dabenak, eure̕z ikusi oi-dira.*




*Alaña'mendi tontoŕa, Oñati'n.*



*Mikel Deunaren zorizkua jantza'zen.*

*Ludiko neskatilaren aberatzena dozubeko au, Doris Duke, eta... jakiña ezkongaya auŕkitu daularik, James H. H. Cronnwell jaunarekin ezkonduba da. Diruba zorijona ba'litz, oindixek esango geunke euren zorijaren baŕi, baña ez ei-da-la, gagozan ixilik.*



*Eden eta Simon ingalandaŕ eŕiketalari ospetsubak, Bilbao'ko itxas arazuak dirala-ta jardun ondoren, euren Batzaŕ-etxetik urteten.*



*Vandremer eta Brun osagilia leprea osatzeko bidia asmau dabe.*



*Lateŕi-Batza'ren Batzaŕ bat dozube au. Len Abisini gaxua atzipetu ebana, ta gaur gu'n atzipetu gura gauzana. Baña gu ezkagoz atzapaŕa agun dogula ibilteko.*



EUZKO MAŔA ZKILARIJAK

*Arzo. maŕazki jatot bai*